

## Akordeoi lehiaketa

Vincent Lhermet  
frantsesa garaille  
KULTURA, 20-21



## Aloñak 2-2 berdindu zuen Zarautzen aurka

Mondrak eta UDAk ere berdindu egin zuten Aurreraren eta Urolaren kontra  
KIROLA, 12-13

## Durangoko azoka

Gureko autoreak  
ere han izan dira  
KULTURA, 22-23



# ASTELEHENKO Goienkaria

ASTELEHENKA • 2006ko abenduaren 11 • 3. urtea • 126. zenbakia • 0,90 euro

## Helburuak beteta itzuli dira etxera 'Ikastolatik Saharara' proiektukoak

Tindoufeko  
errefuxiatuen  
kanpalekuetan  
astebete eman eta  
gero, zapatuan  
itzuli ziren

**BI HELBURU**  
Kontzentziatza eta  
sahararrei laguntza  
eramatea izan dira  
proiektuaren helburuak

**140 LAGUN**  
Txantxiku eta Arizmendi  
ikastoletako ikasle eta  
irakasleak eta Nubi  
ordezkariak izan dira han

**IKASLEAK, ARDURATSU**  
Irakasleek eta arduradunek  
azpimarratu dute ikasleek  
izan duten jarrera

Hilaren 1etik zapatura arte izan  
dira gureko 140 lagunak saharar  
errefuxiatuen kanpalekuetan;  
Aaiunen, hain justu. Hala, due-  
la bi urte hasitako *Ikastolatik  
Saharara* proiektua bete egin  
dute. Sahararrek beharrezko  
dutentzako materiala era-  
mateaz gain, bertatik bertara eza-  
gutu dute haien bizimodua. **4**



TXOMIN MADINA

Txantxiku eta Arizmendi ikastoletako ikasle eta irakasleak eta Nubi elkarteko kideak Aaiungo kanpalekuau.

## AHTren gaineko berbaldiak

Aramaion  
mahai-ingurua  
eta Eskoriatzan  
hitzaldia egingo  
dituzte etzi **9**

## Gureko turroia: fina eta naturala

Gabonetarako  
prestatu duten  
turroia dastatu  
dugu ibarreko  
turroigileekin **2-3**

## Barruan, Aloña Mendi futbol taldeen posterra



## UGARTE

AROZTEGIA-ALTZARIAK



Arotz lanak orokorrean • Horma armairuak • Altzariak • Leihoa • Ateak



**ALTZARI DENDA**  
Ikerlekua zeharbidea • BERGARA  
Tel.: 943 03 46 30

**ERAKUSKETA ETA TAILERRA**  
San Juan 1A • BERGARA  
Tel.: 943 76 54 91 Faxa: 943 76 08 04

# GEUREAN

- Gaur deklaratuko du Lakuntza Arrasateko alkateak Gelmaren harira | 7
- Protesta egingo dute gaur gureko dendariek Zabaletako gunearen kontra | 8



Nora Palmitanorekin etorkinak nola euskaldundu izan dugu berbagai | 6

## ARTISAU TURROIGILEAK GUREAN



Koldo Lasa sukaldaria, jatetxeko harreran, aurten prestatu dituen hamar turroi motekin.

MARIO DEGRACIAS

**TURROIAK** | GORRINGOZKOAK, TXOKOLATEZKOAK ETA INTXAURDUNAK, SALDUENAK

## Azarotik dihardute gureko artisauak turroia prestatzen Gabonetarako

*Gabonetako goxorik ezagunena da turroia eta baita prestakuntzan lan handien ematen duenetakoak; ibarrean baditugu gozogile-artisauak turroi guztiz naturalak egiten dituztenak*

Jon Berezbar

Jo eta su dabiltsa azken asteotan gozotegietako labeak. Azaro aldean hasten dira prestatzen Gabonetako kanpaina eta dagoeneko mazapan eta turroiz lepo ditugu gozotegiak. Gabonetako goxoa zerbait izatekotan, hori turroia da, nahiz eta gurean bestelako pastel eta gozokiek arrakasta handiagoa duten. Hala ere, ibarrean bertan baditugu gozogile-

ak turroigintzari arreta berezia ematen diotenak. Bergarako Larrañaga, Arrasateko Muruamendiaraz eta Oñatiko Errota gozotegietan artisau-turroia egin ten dituzte.

Bergarako gozotegirik zaharrena da Larrañagatarrena eta turroigintzan ere makina bat urte daramate. Kalitate oneneko almendrak ekartzen dituzte eta gozotegian bertain xehatu. Mazapan eta turroizko krokodiloak

dira etxeko izarrak. 1926an egin ten hasi eta urtero-urtero ikus daiteke mazapanezko narrastia dendaren erakusleihoa. Turroiei dagokienez, gogorra zein biguna egiten dute, Leongo maisu batek erakutsitakoak jarraituta. Hala ere, Agustin Larrañaga gozogileak dio turroirik tradizionalenak ez direla modan daudenak, txokolate eta trufazkoak baizik. Gustu guztietako likoreekin egiten dituzte. Hala ere, gehien saltzen dena gorringo txigortuzkoa da.

**NATURALENAK, ARTISAUAK**  
Tradizio handikoa da ere Muruamendiaraz gozotegia; Oñatiko Zubillagan dute lantegia eta dendak Arrasate eta Aretxabaletan daude. Gozotegiak dituen 64 urtetan, betidanik egin izan dute

turroia Gabonetarako, baina, Luis Mari Muruamendiaraz gozogileak azaltzen duenez, beherraka doa turroia erosteko ohitura azken urteetan. Jendeak supermarketuetan erosten du turroia.

**Hala ere,  
Gabenetan gehien  
ohiko goxoak  
saltzen dira**

**Bertako osagaiekin  
eta prozesu zein  
kopuru guztiak  
zainduz egiten  
dituzte**

Hala ere, guztiz naturalak eta errezetari jarraituta egindakoak beti izango dira artisauak. Muruamendiarazkoak bezala. Antza, nahiko izen ona dute Muruamendiarazko turroiek kanpoan ere. Luis Mari Muruamendiarazek kontatu digunez, urtero deitzen diete Zaragozatik turroia eskatze eta kanpoko beste dei asko ere jasotzen dituzte. Bertako espezialitateak: Cadiz motako turroia, gurinezko eta turro-besoia (ijito besoaren antzekoa, baina gorringo, turro, mazapan eta mokarekin).

Oñatin, Errota gozotegikoek egiten dute turroia. Alex Estevez arduratzen da horretaz eta txokolate, intxa eta arrautzakoak egiten dituzte Errotan. Orain dela bospasei urte hasi ziren turroiekin, eta, Estevezek

ARTISAU TURROIGILEAK GUREAN

berak aitortzen duenez, lan han-dien ematen duen goxoetako da. Gainera, almendra lehengai garestienetako da. Oñatin ber-tan, Gorroxategikoek ere badi-tuzte turroiak, baina horiek Tolosan egiten dituzte.

**BEREZIAK NAHIZ ETXEKOAK**


Lasa jatetxeko Koldo Lasak sukaldariak urtero egiten ditu turroi bereziak Gabonetarako: praline zuria, txokolatezkoak, pon-pxedunak, esnegain eta intxa-dunak, eta, aurten bereziena, pistatxoz egindakoak. Lasak ere Leonen ikasi zituen turroigile onaren sekretuak, eta urtero prestatzen ditu turroi bereziak bezeroendako; nahi izanez gero jatetxeen bertan eros daitezke tabletak. Aurten hamar klase-takoak prestatu ditu Koldok.

Jose Mari Arkauz, berriz, 2001ean hasi zen turroiak etxe-an egiten. Errezeta eskuratu eta proba egitearren egin zituen lehen tabletak. Arrakasta izan, eta ordurik hona ibarreko azo-ketan ipintzen du postua, eta oso harrera ona dute haren turroiek. Guztiz naturalak dira, eta intxaurrezkoak, urrazkoak eta frutazkoak egiten ditu. Jen-de ugarik eskatzen dizkio turroiak dagoneneko, eta Arkau-zeek pozik dabilela dio, askok zoriontzen dute-eta. Probatu nahi izanez gero, Santamasetan ipiniko du postua aurten ere hark.

• LAN HANDIAREKIN ETA PRODUKTU GUZTIZ NATURALEKIN EGINDAKO TURROIAK



**ALMENDRA GUZTIZ NATURALAK.** Almendra xehatzetik hasita, prozesu guztia bertan egiten dute Bergarako Larrañaga gozotegian. Reusetik ekartzen dituzte kalitate goreneneko almendrak, eta horiekin prestatzen dituzte turroiak. Gorringo txigortuzko turroia saltzen dute gehien, baina benetako arrakasta krokodilo famatuak daukate. 1926a ezkero egiten dituzte krokodiloak.



**Pistatxozkoa da  
Koldo Lasak  
egiten duen  
turri bereziena**

**Jose Mari Arkauzek  
proba egitearren  
hasi, eta orain  
azoketan saltzen  
ditu tabletak**


**ZALETASUNAK BULTZATUTA.** Halako baten errezeta eskuratu eta turroia egitea otu zitzaison Jose Mari Arkauz eskoriatzarrari, orain dela bost bat urte. Zaletasunez eginen ditu turroiak, baina, esaten duenez, jendeari asko gustatzen zaizkio berak egindakoak. Ingruko azoketan ibiltzen da Jose Mari Arkauz, eta Santamasetaroko ere Arrasaten ipiniko du postua.

**TURROI BESOAK.** Azaroan hasten dira Muruamendaraz gozotegikoak Zubillagako lantegian Gabonetako kanpaina prestatzen. Turroi, mazapan eta gorringozko besoak dira espezialitateak, eta hori da, gurinezkoarekin batera, gehien saltzen den turri mota. Mazapanez egindako figura txikitxoak era asko saltzen dira Gabon partean, turroia baino gehiago.



**Erosten jakin:**  
**ZURE FAMILIARENTZAT ONENA AUKERATU**

 **EROSKI**  
Erosten jakin



*Ikastolatik Saharara* proiektuaren leloa marratzu zuten Olaf Palme eskolan.

TXOMIN MADINA



Sahararrek eskainitako harrera festan, euskal dantzak erakutsi zitzuten gureko ikasleek.

TXOMIN MADINA

'IKASTOLATIK SAHARARA' PROIEKTUA | BERTATIK BERTARA EZAGUTU DUTE SAHARAREN BIZIMODUA TINDOUFEKO ERREFUXIATUEN KANPALEKUETAN

# Etxean dira sahararrei laguntzera joandako 140 debagoiendarrak

*Duela bi urte hasitako 'Ikastolatik Saharara' proiektua gauzatu egin dute egonaldiarekin*

Txomin Madina

Zapatu arratsaldean bueltatu ziren Tindoufeko saharar errefuxiatuen kanpalekuetatik Arizmendi eta Txantxiku ikastoletako ikasle eta irakasleak eta Nubi elkarteko kideak. Astebete igoero dute Aaiungo kanpalekuian, duela bi urte martxan jarritako

*Ikastolatik Saharara* proiektuaren azken pauso garatzen: Euskal Herrian lortutako lagunza materiala sahararrei eramatea eta bertako Olaf Palme eskola margotzea.

**MATERIAL UGARI EROAN DUTE**  
200 kaxatik gora eroan dituzte, era guztietako materialarekin:

lapikoak, osasun eta eskola materiala, pilak, linternak... saharar kanpalekuetan eguneroko bizi-tzan falta diren oinarrizko gauzak. Eguneroko bizitza hori, gainera, bertatik bertara ikusi eta ezagutu ahal izan dute ikasleek;

izan ere, bidaia iraun duen denboran, hango familiekin egon dira bizi izaten. Kanpalekuetako eskolak, ospitaleak, ortuak eta beste hainbat laguntza taldek aurrera eramandako proiektuak ere ikusi dituzte.

## GUZTIA EZ DA LANA IZAN

Rabouni ezagutzeko aukera ere izan dute gureko lagunek, saharar errefuxiatuen kanpalekuetako gune administratiboa eta Fronte Polisarioaren egoitza nagusia, hain justu ere. Eta desertuko dunetan gau bat pasatzen ere egon dira.

Aipagarria da, baita ere, Aaiungo agintari eta biztanleek eskainitako ongietorri festa, non sahararrek euren dantza eta doinuak erakutsi dituzten; eta trukean, ikasleek bertsoak eta euskal dantzak egin zizkieten.

**200 kaxatik gora eroan dute era guztietako materialarekin**

**Aaiungo agintari eta biztanleek ongietorri festa egin zieten**

## Proiektuaren emaitzak eta ikasleen jarrera nabarmendu dute irakasle eta arduradunek

Ikastoletako irakasleei eta Nubi elkarteko arduradunei bidairenen balorazioa egiteko eskatuta, esperientzia oso ona izan dela diote zalantzarik gabe: "Ikastolatik Saharara" proiektuaren bi helburuak bete ditugu: bai kontzientzia eta baita beharra zuten sahararrei laguntza ematea ere", azaldu dute. Horrekin batera, ikasleen jarrera ere gorapatu nahi izan dute: "Uneoro laguntzeko prest egon dira, bai ekarritako 200 kaxak kargatzeko, deskargatzeko eta banatzeko orduan, baita Olaf Palme eskola margotu dugunean ere. Bidaia prestatzen eta bidaian zehar ere gogor egin dute lan",

esan dute irakasle eta arduradunek. Bestalde, ikasleren bat edo beste gaixotu egin dela ere gehitu dute, "baina hori aurreikusitako kontua zen, eta bidaian zehar medikua gurekin izateak segurtasuna eman digu", azaldu dute.

Eta datorren urtean beste halakorik egin duten galdetuta, bidaia errepikatzea zail ikusten dutela aitorru dute, besteak beste, "dena antolatzea lan handia da eta". Hala eta guztiz ere, beste era batera planteatuta bada ere, horrelako proiektuak garatzen jarraitzeko asmoa badutela gehitu dute. Irudian irakasle eta arduradunak.



# Arrasateko artea eta beste munduari laguntzeko

Bidezko  
merkataritza denda  
zabaldu du  
Harreman GKEak  
Ferrerias kalean.  
Elkartasun  
erakusketa ere jarri  
dute, Monterronen

M.B.

Gabonak gertu daude eta urtero bezala data horren bueltan bidezko merkataritza denda zabaldu du Harreman GKEak Arrasaten. Ferrerias kalean ireki dute eta asteluhenetik zapatura egongo da zabalik –hilaren 23ra arte-, 12:00etatik 13:00etara eta 18:00etako 20:00etara.

Artisautza lanak, txokolateak, rona, azukrea... askotariko produktuak eros daitezke han. Edozer erosten dela ere, han batutako beharra dutenei laguntzeke izango da.

**ERAKUSKETA MONTERRONEN**  
Hainbat margolarik emandako margo lanekin erakusketa ere



JOSETXO ARANTZABAL

Margoen salmentatik jasotako dirua herri txiroei laguntzeko izango da.

antolatu dute Harremanekoek Monterronen. Arrasateko artea munduari lagunduz izena du eta Arrasateko eta Aretxabaletako hainbat artisten lanek osatzen dute. Interesatuek hilaren 30era arteko epea izango dute erakusketa ikusteko. Gainera, margoak salgai daude. Bakoitzak bere

prezioa du eta salmenta horretatik batzen duten dirua herrialde txiroei laguntzeko bideratuko dute.

Hurrez guztiaz gain Harremanetik jakinarazi dute hilaren 29an Goikobalua abesbatzak elkartasun kontzertua egingo duela San Juan parrokian.



JOSETXO ARANTZABAL

Joxe Bixente Etxabe eta Lorenza Altuna auzotarrekin batera.

## San Andresen nagusienak omendu zituzten atzo

*Bedoñakoek ere  
auzoko jaiak ospatu  
dituzte aste  
bukaieran*

M.B.

bazkariaren aurretik. Jose Bixente txapela jaso zuen opari eta Lorenzak, lore sorta ederra. Urtean behin batzen dira San Andres baserri auzoko bizi-lagunak auzoko nagusienak omendu eta elkarrekin bazkalatzeko. Atzo 35 bat batu ziren.

**BEDOÑAN ERE JAIAK**  
Askotariko ekitaldiak izan dituzte Bedoñakoek: umeendako jolasak, mus, briska eta tortilla txapelketa, eta baita auzoko afaria ere.



## ALMACENES ARRASATE

FAGOR, ASPES, SHARP eta EDESA etxetresnetan sekulako eskaintzak!  
Orain erosi, eta ordaindu sei hilabetean interes barik.



AURREKONTUAK KONPROMISO BARIK.



HOZKAILUA COMBI 4FAC495  
360 € 59.899 pta

aspes



HOZKAILUA 2 ATE  
220 € 36.605 pta

aspes



ONTZI-GARBIGAILUA LJA - 0140  
200 € 33.277 pta

aspes



GARBIGAILUA LA-110  
240 € 39.933 pta

e edesa

**"RENOVE PLANA"** 75 euroko deskontua



"EVA" MAHAI  
110x70 cm

365 € 60.731 pta



TELEBISTA SHARP LC-26P55  
LCD 26"

899 € 149.557 pta



TELEBISTA SHARP LC-32P70  
LCD 32" LTD BARNE

1.250 € 207.950 pta



ERRADIADOREAK

1500 W..... 379 €  
1250 W..... 345 €  
1000 W..... 299 €  
750 W..... 255 €  
500 W..... 210 €

- Bero urdina
- Eskuzko termostato elektronikoa
- Instalazio erraz eta azkarra
- Berehalako beroa



**Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperativistendako prezio bereziak.**

Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.

Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.



Egunean, UEMAk antolatuta, immigrazioa eta hizkuntza politika udalerri euskaldunetan aztertuko dituzte, Eibarren. Nora Palmitano berargarra izango da

jardunaldion gidaria eta jarraipen-talde bat sortu gura dute. Jatorriz argentinarra, gaur egun Zestoako Udaleko Euskara teknikaria da eta gertutik ezagutzen ditu kultura

aniztasunari dagozkion gaiak. Bere esperientziaren berri ere emango du hark mahai-inguru baten, Ekuadorko eta Senegalgo etorkinekin batera.

**NORA PALMITANO | 'IMMIGRAZIOA ETA HIZKUNTZA POLITIKA' JARDUNALDIEN GIDARIA**

# "Pisuzko arrazoiak ikusten baditu, etorkinak euskara ikasiko du"

Jon Berezibar

**Urte asko daramazu Euskal Herrian; nola gerturatu zinen euskalgintzara?**

Kasualitateek-edo bultzatu ninduten. Euskara ikasten hasi eta hala gerturatu nintzen, eta azkenean Zestoako Udalean amaitu dut. Bertara heldu nintzean ez nuen ezer ezagutzen. Gizonaren etxera etorri eta haren familia eta inguruak euskara egiten zuen, eta hurrengo egunean euskara ikasteari ekin nion. Ez zen aurrez pentsatua izan edo kontzientzia kontuengatik egindakoa, normaltasun osoz egin nuen. Ostean jakin nuen egoera zein zen eta gerora jakin nuen euskara ezagutu barik ere moldatu egin nientekeela.

**Integratzeko orduan ezinbestekoia izan zaizu euskara?**

Nire kasuan bai. Alde batetik nire gizonaren inguru hurbilean integratzeko jakin egin behar nuen eta Bergarako bizimoduere euskarak presentzia handia dauka.

**Jardunaldieta euskal udalerrietara eramango duzue gaia baina. Zein da ardura?**

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak antolatu ditu jardunaldiok; euskaldun kopuru gehien dituzten udalerriek osatzen dute. Normalean udalerri horiek txikiak izaten dira biztanle kopuruari dagokionez. Momentu baten etorkin multzo handi bat herri horietara etorriz gero, egoera guztiz hankaz gora jar dezakete. 300-500 biztanle duen herri txiki baten sekulako eragina du horrek; pentsa 40 bat lagun badatoz obra batzuk direla-eta; ez dute hizkuntza menderatzen, eta zer gertatzen da euskararen erabilerarekin?

**Zestoan, esaterako, hori gertatzen dabil?**

Zestoan ez da hain kopuru handirik etorri. Gainera, oso ezberdina da euren kabuz badatzen edo bertako norbaitekin. Herri oso euskaldun batera badatzen bertako batekin, sarre errazagoa du etorkinak eta errazago ezagut dezake hizkuntza, eta ikasi egin dezakela daki. Kasu askotan kalean bertan ikasten du, eta ez euskaltegian. Etorkinen migrazio fenomenoa asko aldatu da azken urte hauetan. Ni etorri nintzen garaian banaka zetozenten eta integrazioa norberaren arazoa zen. Gaur egun taldeka etortzen dira eta lana eta bizi tokia aurkituz gero bertan geratzen dira. Kasu horretan integrazioa ez da hain beharrezkoa, behar sozialak taldetxo horretan betetzen dituztelako, azpi-komunitate txiki bat sortzea posible da. Hori da euskal komunitateak edo administrazioak nahi duena? Kontuan izan behar da orain etorkinak behar ditugula tabernetan zerbitzatzeko, zaintza lanetarako, garbiketarako... Ekonomiak behar ditu. Beraz, komunitate batek bestearen beharra dauka gaur egun. Bertakoek egin nahi ez dituzten lan horiek guztiak egiten dituzte eta bizimodu baten bila etorri dira. Behar horiek ondo uztartzea ea posible den ikusi behar da modu aberasgarri.

**Jardunaldien ardatza da hori, ezta?**

Hau aztertu eta jarraipenerako lantalde bat sortzea da nahia. Helburua da etorkinentzako harrera-protokoloa ezartzera. Hori diogunean, kontuan hartu behar da integrazioa bi



JON BEREZI BAR

Jardunaldien gidari izango da Nora Palmitano berargarra.

**"Etorkin multzo bat herri euskaldun txiki batera joaten bada, hankaz gora jar dezakete egoera"**

**"Sarri zelan lagundu asmatu ez eta erdaraz egiten zaio etorkinari, gauzak erraztu aldera"**

norabidekoa dela, bertako komunitatearena ere bada ardura. Etorkinak bakarrik integratu behar du ala komunitatea ere bada integratu behar duena? Hori ez da naturalki gertatzen den zerbait, eta administratiotik elkarren ezagutza hori bermatzeko politikak egin beharko dira.

**Katalunia eta halako herrialdeetatik har daiteke ereduia?**

Han etorkin kopuru handia jasotzen aspalditik ari dira, egina daukate bidea. Gure inguruaren Sakanako esperientzia da ezagunena. Han etorkinentzako bulego bat daukate, haien zalantzak eta informazio guztia batzen da bertan. Euskara horietako arlo bat da.

**Eta bertakoo nahikoa lagundi, eskertu edo preziatzen dugu?**

Denetarik dago, baina jendeak laguntzen du. Batzueta ez da asmatzen zelan lagundi eta pentsatzen da erdaraz egitea dela laguntzea. Badaude beste batzuk esaten dutenak "euskaldunak gu gara eta berdin zai-gu haiak euskara ikasi ala ez". Munduan denetarik dago.

**Nola motiba daiteke etorkina euskara ikasteko?**

Bizitza berri bati beste toki baten ekitea oso latza da. Pisuzko arrazoiak ikusten baditu, euskara ikasiko du etorkinak. Orain datozen etorkinek euren herriean ez dute etorkizunik ikusten. Etorkizun hori ziurtatzeko dena egiteko prest egongo dira. Ahalegin handia da euskara ikastea, baina baita hemengo janetara ohitzea eta beste hainbat gauza ere. Behar nagusiak aseta, hau da, jana, osasuna, hezkuntza eta lana, orduan hasten zara zure burua zabaltzen.

## IRIARTE

Umeen  
denda  
•  
Helduen  
lentzeria



Durana 8

Tel.: 943 79 10 96  
ARETXABAleta

## Kultura aniztasuna, euskara eta etorkinen integrazioa aztergai Eibarren

Etorkinekiko hizkuntza politika aztertuko dute egunean Eibarko Markesko jauretxean. Udal Euskal Unibertsitatearen eta UEMAre laguntzarekin, egun guztirako egitaraua gertatu dute hitzaldi eta mahai-guruekin.

Katalunian esperientzia zabala dute dagoeneko alor horretan eta bertako ondorioen berri emango da jardunaldieta. Goizero hitzaldi-sorta gehienek Kataluniako esperientzia izango dute ardatz. Hala, egindako planak eta Vic herriko esperientziak

ipiniko dituzte eredu modura. Udal esperientzia horiek ezinbestekoak izango dira bertako planak diseinatzeko orduan, Katalunian urteak daramatze-eta horretan lanean. Gaia gerturago ekarrita, Sakanan egindakoaren hausnarketa ere egingo dute bertako Mankomunitateko Euskara batzordeko lehendakariarekin. Immigrazio Behatokiko zuzendarri Xabier Aierdi soziologoak Jaurlaritzaren II. plana azalduko du eta Xabier Azkoitia abadeak bazterketa soziala pairatzeko arriskuan dauden etorki-

nen gaineko hausnarketa egingo du. Hitzaldi eta mahai-inguruekin lantzen den iraunkorra osatuko dute gaiaren jarraipena egin ahal izateko. Taldearen helburua agintariak, etorkinak eta, oro har, herritarra sensibilizatzea izango da.

Hain zuzen, 08:30ean hasiko dira jardunaldiak eta 18:00ak arte iraungo dute. Bereziki udalerri euskaldunetako hautetsie, gizarte lagunzaileei, immigrazio eta euskara teknikariei eta kultura aniztasunaren gaiekin interesatuei daude zuzenduta.

MCC | EAE-KO ENPLEGUAREN %3,8 ETA NAFARROAKOAREN %1,4 IZAN ZITUEN 2005EAN

# Iaz 39.658 langile izan zituen Hego Euskal Herrian

*Industria sektoreari dagokionez,  
enpleguaren %8,7 izan zuen EAEn  
eta %2,6 Nafarroan*

## Asteleheneko Goienkaria

2005. urtearen amaieran 78.455 langilek egiten zuen lan MCCko kooperatiba eta enpresa partaiduetan; horietatik 39.658k Hego Euskal Herrian: 35.842k EAEn eta 3.816k Nafarroan. MCCk emandako datuen arabera, EAEn enpleguaren %3,8 zuen eta Nafarroakoaren %1,4.

## INDUSTRIA ARLOA

Industria sektoreari bakarrik erreparatz gero, %8,7ra igotzen da portzentajea EAEn eta %2,6ra Nafarroan. Industria sektoreko datuok herrialdeka begiratuz gero, Gipuzkoan izan zuen MCCk langile gehien: %16, hain justu ere. Hori horrela, iaz, sei langiletik batek MCCko industria enpresetan egin zuen lan.

## INDUSTRIKOAK EZ DIREN SEKTOREAK

Euskadiko Kutxa -finantzen sektore- eta Eroski -banaketa arloa- izan ziren enplegu kooperatiboaren bultzatzaile nagusiak iaz. 11.439 langileri eman zieten

## Labur

**Gaur deklaratuko du Arrasateko alkate Lakuntzak Gelmaren harira**

Inazio Lakuntza Arrasateko alkatek eta Jose Mari Loiti alkate ohiak gaur deklaratuko dute inputatu gisa -Jabier Gilbert enpresaburua ere inputatuta dago- Bergarako epaitegian, Ezker Batuak Gelmaren auzia dela-eta jarritako errekursoaren harira. Lakuntzak uste du "urrekoan moduan, tramite kontua dela". Eta "artxibatu zuteneko argudio berak" eramango dituela gehitu du. 10:00etan hasiko dira deklarazioak hartzen.

Ezker Batuak salaketa jarri zien Lakuntzari, Gelma enpreseko nagusiari eta Obenerreka promotorreari, "ustezko hiru deliturengatik: eroskeriagatik, ondasun publikoak bidegabe eralgizteagatik eta eraginen trafikogatik Gelmako hirigintza hitzarmenean". Probintzia Auzitegiko Fiskaltzak kasua artxibatzea erabaki zuen eta EBk errekursoa jarri zuen. Orain, instrukzio epaileak onartu egin du errekursoa eta EB "pozik" azaldu da erabakiarekin. EBko Ander Rodriguezek eta Ines Aldaik lekuko moduan deklaratuko dute.

diren MCCko gainerako kooperatiba eta elkartetako langileak gehituz gero, 11.439ra igotzen da kopurua.

## GIPUZKOAN ENPLEGU GEHIEN EMAN DUENA

Korporazioaren jarduera guztiak kontuan hartuz gero, 2005. urte amaieran Gipuzkoako lehenda-

biziko enplegatzalea izan zen: 20.325 zuzeneko enplegu eman zituen. Bizkaian ere lehendabizikoa izan zen, 12.550 enplegu emanda.

Nafarroari dagokionez, bigarren postuan ageri da, Volkswagenen atzetik, 3.800 enplegu-rekin eta Araban, berriz, hirugarrenen postuan, 2.500

enplegurekin, Mercedes eta Michelin enplegurekin, Mercedes eta Michelin enplegurekin.

Zuzeneko enpleguaz gainera, korporazioak garatzen duen jarduerak beste 18.600 lagunendako lana eragin zuen autonomia erkidegoan, korporazioko enpresek beste hornitzaila batzuei eskatutako zerbitzuak direla-eta.

# Datorren astelehenean, hilaren 18an, **ASTELEHENKO GOIENKARIA** BERRITUA



## Aurten:

Egubakoitzeko Goienkaria, Goiena.net eta Goiena Telebista berritu eta hobetu ditugu.

## Eta orain:

**ASTELEHENKO GOIENKARIA** berritu eta hobetu egingo dugu:

- Herrietako informazio zabalagoa.
- Zerbitzu-informazio zabalagoa.
- Kolore gehiago.
- Diseinu berritua.

**Datorren astelehenean, hilaren 18an,  
ASTELEHENKO GOIENKARIA berritua**

**Albiste izango da**

ARAMAIO | HILAREN 15EAN IZANGO DA

**Muztioa produzitzeko asmoa  
dutenendako batzarra deitu dute**

Muztioa produzitzeko eta komertzializatzeko asmoarekin dabilta herriko hainbat sagarzale eta sagardozaile. Orain arte egin duten sagardoari laga eta haren ordez muztioa egitea pentsatzen dabilta. Hala, asmo hori nork bere kontura landu beharrean, bideragarriagoa zaie elkarrebat sortu eta guztien artean egitea aurrera. Besteak beste, muztioa produzitzeko beharrezko duten tresneria denon artean erosteko. Hilaren 15erako batzarra deitu dute, 18:30ean, kultura etxeen. Han asmo horien guztien berri emanago dute eta interesa duten guztien dago zabalik.

ESKORIATZA ETA ARAMAIO | HILAREN 13AN

**AHTren gaineko berbaldia eta  
mahai-ingurua, hurrenez hurren**

Eskoriatzako Aitzorrotz kultura elkartea AHT: aurka egoteko arrazoiak eta tren sozialaren aldeko argudioak leloa daukan berbaldia antolatu du. Etzi egingo dute, 19:00etan, kultura etxeen. Berbaldian parte hartuko dute Onbide.org elkarteko kideek eta AHT Gelditu! Elkarlana plataformako ordezkarri Mila Elortzak. AHTk udalerrian izango duen eragina azalduko dute, besteak beste.

Aramaioko AHTren kontrako taldeak, berriz, mahai-ingurua antolatu du. Besteak beste, parte hartuko dute Lurra plataformako Alberto Friasek, EHNEko ordezkarri batek eta Iñaki Antiguedad hidrologoak. Hilaren 13an izango da hori ere, 19:00etan, kultura etxeen.

ANTZUOLA | BIHARTIK HILAREN 22RA ARTE IZANGO DA

**Material batzea eta hitzaldia  
Sahararen aldeko astearen barruan**

Urtero bezala, Sahararako materiala batuko dute Anelkar Antzuolako Elkartasun Taldeko kideek. Sahararen aldeko astearen barruan egingo dute hori, bihar hasi eta hilaren 22ra arte, hain justu ere. Honako tokietan batuko dute materiala: Herri Ikastetxean, Eroskin eta Kalebarren denden. Aurten batuko dutena da atuna latan, konpresak, arroza eta dilistikak. Sahararen aldeko astearen barruan dokumental baten emanaldia eta berbaldia ere antolatu ditu Anelkarrek. Abenduaren 14an, eguna, izango da hori, 19:00etan, Olaran etxeen. Hasteko, Sahararen egoeraren gaineko ikus-entzunezko emango dute. Gero, Aitor Peñagarikako antzuolarrak berbaldia egingo du. *Ikastolarik Saharara proiektuarekin Tindoufeko kanpaketan izan berri da, eta han ikusitakoak kontatuko ditu.*

ARRASATE | BARIKUAN IZANGO DA

**Udal Euskaltegiaren 25. urtemuga  
ospatzeko afaria egingo dute**

Arrasateko Udal Euskaltegiak 25 urte bete ditu. Hala, urteurrena ospatzeko afaria egingo dute abenduaren 15ean, egubakoitzat. Aspaldiko lagun, ikasle eta ikasleak mahaiaren bueltan elkartuko dira Uarkape pilotaleku jatetxeen (23 euro da afaria). Gaur da afarirako izena emateko azkeneko eguna; hortaz, oraindik izeina eman ez dutenek azkar ibili beharko dute. Izena emateko euskaltegiko arduradunekin harremanetan jarri beharko dute. Horretarako bi bide daude: 943-79 70 77 zenbakira deituta edo mezua bidalita [euskaltegi@arrasate-mondragon.net](mailto:euskaltegi@arrasate-mondragon.net) helbidera.

ARRASATE | ZABALETAKO GUNEAREN KONTRA DAUDE

**Protesta egingo dute gaur eta  
bihar ibarreko dendariekin**

Zabaletan (Arrasate) egitekoak diren merkataritza-ettearen aurka azaldu dira asteo ibarreko dendari elkartea. Diote, besteak beste, eskualde mailako kontzentrazio eredu hori ibarreko herri-bakoitzaren garapenaren aurkakoa dela, eta beste herrietako gabeziak are nabarmenagoak izango direla. Hori horrela, euren ezinegona azaltzeko hainbat ekimen egingo dute: gaur eta bihar dendetako erakusleihoak estali egingo dituzte paper beltzakin. Horren batera, oraindik zehazteke dagoen aste bukaera batean, erakusleihoetako argiak estali egingo dituzte. Hala erakutsi nahi dute kaleek, merkataritzarik gabe, bizitasuna galduko luketela.

**Hitzorduak****ARETXABAleta |****Beinke euskara elkartearen 20. urteurreneko jaia hilaren 15ean**

Beinke euskara elkartearen -gaur Loramendi da- 20. urtemuga ospatzeko jaihandia egingo dute datoren zapatauan, hilaren 15ean, Aretxabaletan. Hainbat ekitaldi antolatu dituze ospakizunerako: 17:00etan, ludotekakoek *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* antzeztuko dute Kurtzebarri eskolan; 18:00etan,

buruhandiak aterako dira eta 18:30ean, txokolate-jana egongo da. 19:00etan, plazan, Beinke-Loramendiaren historia kontatzeko performance-a egongo da, eta, gero, Beinke Loramendi dantza. Afaria ere egongo da egun horretan taberna berrin. Txar telak salgai daude Loramendin (30 euro).

**ARETXABAleta |****• Kontakt-inprobisazio ikastaroa egingo dute**

Kontakt-inprobisazio ikastaroa antolatu du Jaiki elkartea abenduaren 16 eta 17rako musika eskolan. 13 orduko ikastaroa da, eta leku kopuru mugatua dago. Izena emateko, deitu 943 53 43 96 telefonora (Maier).

Arizmendi ikastolak egin duen Sahararen aldeko zozketan zenbaki hauek sartu dituzte: 23.497 (asteburua landetxeen), 64.746 (bi lagundako afaria) eta 21.267 (La Perlan saioa).

**ARRASATE |****• Sanatana Dharma yoga eskolaren eskaaintza**

Yoga eskolak ematen ditu Sanatana Dharma eskolak astean lau egunean. Bañez Doktorea kalean dago eskola.

**BERGARA |****• Gabonetako argiak eta zeramika taldearen jaiotza**

Etzi, eguztena, Gabonetako argiak piztuko dituzte, eta Simon Arrieta zeramika taldeak egindako jaiotza udaletxean ipiniko dute jendeak ikusteko.

**• Santa Lutzia egunean luntxa egingo dute****Abaroakoek**

Santa Lutzia eguna ospatzeko, luntxa izango dute Abaroako erretiratuek, joan den astean horretarako izena eman dutenek. Hilaren 13an, eguztena, Abaroan, 18:30ean.

**• Sabel dantza ikastaroa antolatu du Jardun elkartea**

Sabel dantza ikastaroa antolatu du Jardun elkartea abenduaren 13, 15, 20 eta 22rako. Izenematea zabalik dago abenduaren 11ra bitartean (943 76 36 61).

**• 1976an jaiotakoek bazkaria izango dute**

1976an jaiotakoek batera bazkaltzeo aukera dute abenduaren 16an Txarrantxan. Izena emateko, sartu 35 euro Kutxan zabaldut duten kontuan.

**• Mendiko aseguruak egiten hasiko da gaur Pol-Pol**

Pol-Pol Mendizale Taldea datoren urterako mendiko aseguruak egiten hasiko da gaur haren egoitzan. Asteleheneitik egunera egongo dira, 19:00etik 20:30era.

**ESKORIATZA |****• Mendekotasuna duten pertsonak zaintzeko**

Menpeko pertsonen zaintza delako hitzaldia egingo dute Itziar Gabikagogeaskoak eta Isabel Castrok martitzenean, hilak 12, kultura etxeen, 18:00etan.

**• Capoeira eta maculele ikastaroan izena emateko**

Capoeira eta maculele ikastaroa antolatu du Senzala Euskadi elkartea hilaren 15etik 17rako. Argibideak: [senzala-euskadi@hotmail.com](mailto:senzala-euskadi@hotmail.com).

**ÖÑATI |****• Oilentzerori Internetez gutunak idazteko**


Oilentzerori Internetez gutuna idazteko lehiaketa antolatu du KZguneak, ume eta helduendako. Parte-hartzaleen artean, Eroskin on-line erosko baleak zozkatuko dituzte, eta denendako opariak ere egongo dira.

**DEBAGOIENA |****• Zuberoako bi ikastolari laguntzeko otzarak**

Zuberoako Basabürü eta Eperra ikastolek Gabonetako otarra saltzen dituzte hango hainbat produkturekin. Erosko, deitu 943 79 20 24 telefonora edo bidali mezua [menbitzu@euskalnet.net](mailto:menbitzu@euskalnet.net) helbidera.

# Debagoieneko WEBGUNEAK

WWW.



**AHOLKULARITZAK**  
ESTRADOS  
[www.consultoria.estrados.com](http://www.consultoria.estrados.com)

**ANTZINAKO ALTZARIAK**  
ZUMADIA  
[www.zumadia.com](http://www.zumadia.com)

**AKADEMIAK**  
BASTIDA  
[www.bastida.es](http://www.bastida.es)

**ALTZARIAK ETA APAINKETAK**  
BZ-SISTEMAS  
[www.goiena.net/blogak/BZ-sistemas](http://www.goiena.net/blogak/BZ-sistemas)  
MARRUBI  
[www.marrubi.com](http://www.marrubi.com)

**ARETOAK**  
360 ARETOA  
[www.360aretoa.com](http://www.360aretoa.com)

**ARGAZKIAK/ARGAZKILARIAK**  
MARIA JESUS  
[www.mjargazki.com](http://www.mjargazki.com)

**AROZTEGIAK**  
ARREGI  
[www.goiena.net/blogak/arregi](http://www.goiena.net/blogak/arregi)  
AZKARATE  
[www.goiena.net/blogak/azkarate](http://www.goiena.net/blogak/azkarate)

**ARRAINDEGIAK**  
ITXASEDER  
[www.goiena.net/blogak/itxaseder](http://www.goiena.net/blogak/itxaseder)

**ASEGURUAK**  
BRIZ ASEGURUAK  
[www.goiena.net/blogak;briz-aseguruak](http://www.goiena.net/blogak;briz-aseguruak)  
WINTERTHUR  
[www.winterthur.es](http://www.winterthur.es)

**AUTOEN GARAJEAK/KONPONKETA**  
AUTOS ARETXA S.L.  
[www.autosaretxa.com](http://www.autosaretxa.com)  
**AUTOS RIBEGOLA -BMW-**  
[www.autos-ribegola.com](http://www.autos-ribegola.com)  
**GALLASTEGI MOTOR SPORT**  
[www.goiena.net/blogak/gallastegi](http://www.goiena.net/blogak/gallastegi)  
**JC RACING**  
[www.goiena.net/blogak/jcracing](http://www.goiena.net/blogak/jcracing)

**AUTO-KONTZESIONARIOAK**  
4QUATTRO 4  
[www.goiena.net/blogak/4quattro4](http://www.goiena.net/blogak/4quattro4)

**BIDAIA AGENTZIAK**  
BARCEO  
[www.barceloviajes.com](http://www.barceloviajes.com)

**BITXITEGI TAILERRA**  
OSKAR VITORIA  
[www.goiena.net/blogak/vitoria](http://www.goiena.net/blogak/vitoria)

**ELEKTRIZITATE INSTALAZIOAK**  
ARETXARGI  
[www.goiena.net/blogak/aretxargi](http://www.goiena.net/blogak/aretxargi)

**ELEKTRIZITATE MATERIALAK**  
SETALDE  
[www.setalde.com](http://www.setalde.com)

**ERAIKUNTZAK**  
CONSTRULAN  
[www.construlansl.com](http://www.construlansl.com)

**ERROTULOAK**  
PANDO  
[www.goiena.net/blogak/pando](http://www.goiena.net/blogak/pando)

**ESTETIKA ZENTROAK**  
ANGELA  
[www.angelaestetika.net](http://www.angelaestetika.net)  
GUZTIZ EDER  
[www.goiena.net/blogak/gutzizeder](http://www.goiena.net/blogak/gutzizeder)  
LILURA  
[www.lilura.com](http://www.lilura.com)  
MAIER  
[www.goiena.net/blogak/richimaier](http://www.goiena.net/blogak/richimaier)

**FISIOTERAPIA ZENTROAK**  
EKIN  
[www.goiena.net/blogak/ekin](http://www.goiena.net/blogak/ekin)

**GARBIKETAK**  
HEMEN  
[www.hemen-garbiketak.com](http://www.hemen-garbiketak.com)

**GIMNASIOAK**  
IRUDI SPORT  
[www.goiena.net/blogak/irudisport](http://www.goiena.net/blogak/irudisport)

**HARATEGIAK**  
LANDALUZE  
[www.landaluze.com](http://www.landaluze.com)

**HAUR PARKEAK**  
OKIPARK S.L.  
[www.goiena.net/blogak/okipark](http://www.goiena.net/blogak/okipark)

**HESTEBETEAk**  
URDEKI  
[www.goiena.net/blogak/urdeki](http://www.goiena.net/blogak/urdeki)

**HIZKUNTZA AKADEMIAK**  
CIM-OÑATI BAI & BY  
[www.cim-idiomas.com](http://www.cim-idiomas.com)

**HOTELAK**  
HOTEL MONDRAGON  
[www.hotelmondragon.com](http://www.hotelmondragon.com)

**ILE APAINDEGIAK**  
RICH  
[www.goiena.net/blogak/richimaier](http://www.goiena.net/blogak/richimaier)

**INFORMATIKA**  
DCA COMPANY  
[www.dcacompany.com](http://www.dcacompany.com)

**INGENIARI GEOLOGIKOA**  
HARRILUR  
[www.harrilur.com](http://www.harrilur.com)

**INMOBILIARIAK**  
ANBOTO  
[www.inmoarrasate.com](http://www.inmoarrasate.com)  
ARRIETA & SAN MIGUEL  
[www.arrietasanmiguel.com](http://www.arrietasanmiguel.com)  
KOROSTI  
[www.inmokorosti.com](http://www.inmokorosti.com)  
UDALATX  
[www.goiena.net/blogak/udalatx](http://www.goiena.net/blogak/udalatx)

**JANARIAK**  
GERTU  
[www.goiena.net/blogak/gertu](http://www.goiena.net/blogak/gertu)

**JANTZI DENDAK**  
MARKIEGI  
[www.goiena.net/blogak/markiegi](http://www.goiena.net/blogak/markiegi)  
UDALAITZ  
[www.goiena.net/blogak/udalaitz](http://www.goiena.net/blogak/udalaitz)

**JATETXEAK**  
BASTER ALDE  
[www.baster-alde.com](http://www.baster-alde.com)  
**DRAGON ORIENTAL**  
[www.goiena.net/blogak/dragon-oriental](http://www.goiena.net/blogak/dragon-oriental)  
**DUKIENA**  
[www.goiena.net/blogak/dukiena](http://www.goiena.net/blogak/dukiena)  
**MAULANDA**  
[www.goiena.net/blogak/maulanda](http://www.goiena.net/blogak/maulanda)

**LANDETXEAK**  
UXARTE LANDETSEA  
[www.goiena.net/blogak/uxarte](http://www.goiena.net/blogak/uxarte)

**LEIHOAK**  
ARGI-PLASTIK  
[www.goiena.net/blogak/argi-plastik](http://www.goiena.net/blogak/argi-plastik)  
**EGO**  
[www.goiena.net/blogak/ego](http://www.goiena.net/blogak/ego)

**LORADENDAK**  
EKILORE  
[www.goiena.net/blogak/ekilore](http://www.goiena.net/blogak/ekilore)  
**MAYTE**  
[www.goiena.net/blogak/mayte](http://www.goiena.net/blogak/mayte)

**OINETAKOAK**  
KORO ZABAleta  
[www.goiena.net/blogak/korozabaleta](http://www.goiena.net/blogak/korozabaleta)

**OKINDEGIAK**  
AIASTUI  
[www.goiena.net/blogak/aiastui](http://www.goiena.net/blogak/aiastui)  
**OPARIAK**  
MERKEOPARI  
[www.goiena.net/blogak/merkeopari](http://www.goiena.net/blogak/merkeopari)

**OPTIKAK**  
MULTIÓPTICAS LARRAÑAGA  
[www.goiena.net/blogak/multiopticas](http://www.goiena.net/blogak/multiopticas)

**OSTALARITZA**  
GARAIA OSTALARITZA HORNICKETAK  
[www.goiena.net/blogak/garaia](http://www.goiena.net/blogak/garaia)

**PUBLIZITATE AGENTZIAK**  
ADOX  
[www.adoxnet.com](http://www.adoxnet.com)

**SKATE&SNOW**  
LAINO  
[www.laino.info](http://www.laino.info)

**SUKALDEKO ALTZARIAK**  
BASTIDA SUKALDEAK  
[www.goiena.net/blogak/bastida](http://www.goiena.net/blogak/bastida)

**TABERNAK**  
EZKUTU  
[www.goiena.net/blogak/ezkutuorly](http://www.goiena.net/blogak/ezkutuorly)  
**GUREA**  
[www.goiena.net/blogak/gurea](http://www.goiena.net/blogak/gurea)  
**HAMAIIKA**  
[www.goiena.net/blogak/hamaikataberna](http://www.goiena.net/blogak/hamaikataberna)  
**ORLY**  
[www.goiena.net/blogak/orly](http://www.goiena.net/blogak/orly)  
**ZIRIPOT**  
[www.goiena.net/blogak/ziripot](http://www.goiena.net/blogak/ziripot)

**TATUAJEAK**  
GANESHA  
[www.goiena.net/blogak/ganesha](http://www.goiena.net/blogak/ganesha)

**TAXIAK**  
GORKA GARAI  
[www.goiena.net/blogak/gorkataxi](http://www.goiena.net/blogak/gorkataxi)

**UDAL ZERBITZUAK**  
GAZTEEN INFORMAZIO BULEGOA  
[www.aizue.com](http://www.aizue.com)

**UMEENDAKO ARROPA**  
HAURTXOA  
[www.goiena.net/blogak/haurtxo](http://www.goiena.net/blogak/haurtxo)

**ZERAMIKAK ETA BAINUAK**  
GELATZU  
[www.gelatzu.com](http://www.gelatzu.com)  
**URBIETA**  
[www.goiena.net/blogak/urbjeta](http://www.goiena.net/blogak/urbjeta)

**ZERBITZU DIGITALAK**  
ATAI  
[www.goiena.net/blogak/atai](http://www.goiena.net/blogak/atai)

**ZUR LANTZAILEA**  
ELEJALDE  
[www.goiena.net/blogak/elejalde](http://www.goiena.net/blogak/elejalde)

# Iritziaik



**Isilpekoak**

**943 25 05 02**

[goinenkaria@goiena.net](mailto:goinenkaria@goiena.net)

Zerbait esateko daukazula? Deitu edo idatzi e-posta. Zeri txaloak, zeri txistuak... Eta sail honetan aterako ditugu zure komentarioak.

• **Otalora Lizentziaduna kaleko bideko zuloak**

Arrasateko Otalora kaleko errepidearen egoeraren gaineko kexua azaltzeko jo du irakurle batek sail honetara. Hark agertzen duenez, Uarkapetik hasi eta Maalako birlibgunera arteko zatiaren egoera "ezin da okerragoa izan". "Azken urteetan inguruaren egindako lanek errepidea zulo eta pitzaduraz jositu utzi dute", dio hark. "Zulo batzuk hain dira handiak, autoetako erruberak trabatu eta guzti egiten direla". Ez da hor amaitzen irakurlearen azalpena; izan ere, bidearen ertzetan kamioien pisuak errepidea zapaldu eta gorabehera saihestezinak sortu ditu. "Tamalgarria da herri erdiko bidea horrela ikustea, eta ordua da konpontzen hasteko", dio amaitzeko.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
diruz lagundutako aldizkaria**

**Halaxe erantzun digute**

Bazter-babesek ezbehar asko eragin diete motorzaleei; administrazioak kontzientziazio nahikoa dauka




**RITXAR GOROSABEL |  
ARRASATE MOTOCCLUB**

Jende asko hil da edo gorputz-atalen bat galdu du bazter-babeseten. Denak aldatzea garestia izan daiteke, baina ikerketak eginda daude, eta ahal da. Hesi horien azpian xaflak ipintzen hasi dira, baina hori ere ez da egokiena. Orain hasi da Mutualitate Nazionala presioa egiten.



**JOSU LETURIA |  
BERGARAKO MOTORZALE TALDEA**

Legeak badaude dagoeneko eta nahi izanez gero badaukate aldatzea. Kontraesankorra bada ere, autobide berriaren lehengo eredukoak jartzen dituzte, eta horiek dira arriskutsuak. Guk ez dugu exijitzen urte bian denak aldatzea, baina bai poliki-poliki epe-luzera aldatzen joatea.



**MIKEL MADINABEITIA |  
ARRASATE MOTOCCLUB**

Leku batuetan, Itziarko kurban esateko, ipini dituzte azpiko xafla horiek eta hasi dira aldatzen, baina asko dago egiteko. Herrietan bertan zebrabideetako pintura eta seinaleztapen marretako oso labaingarria da eta arrisku egoerak eragiten ditu. Udalek, esan arren, ez dute ezer egiten.



**URTZI PEREDA |  
ARRASATE MOTOCCLUB**

Leku kritiko batuetan hasi dira babesak ipintzen, baina nahiko geldi dago guztia. Orain dela gutxi hasi gara protesta egiten, eta hasieran ez ziren eskakizunak seriotzat hartzen. Ematen du orain hasi direla konturatzen. Udaletara ere egin dugu eskaera, baina erantzunik jaso gabe.

**Sarean harrapatuta**

**Ordua ordubete atzeratzeko proposamena Galizian**

Galiziako BNG alderdiak ordua ordubete atzeratzeko proposamena egin du. Haiek diotenez, Galizia Greenwich-ko meridianoaren parean egonik bidezkoa da ordu aldaketa. Hala, Britainia Handiko, Irlandako eta

Portugalgo ordu bera izango lukete. Argi orduak hobeto aprobetxatuko liratekeela diote. Bada, proposamenak eztaba sortu du, Espainiako hedabideetan batez ere. Sarean ere izan dira iritzi batzuk.

**TURISMOA GEHITZEKO  
MODUA DA ORDUARENA**

Niri ondo iruditzen zait energia aurrezteketa eta Galiziaren garapenerako bidaia erabaki hori proposatzea edo aurrera eramatea. Dena den, interes ekonomikoak besterik ez ditut ikusten erabaki horren atzean. Izen ere, aurreko batean entzun nion aditu bati turismoa suspertzeko ona izango dela. Hau da, ordua ordubete edo bi atzeratzek Galiziarako bidaia orduan ere eragina izango luke eta ondorioz Galiziari iristean denbora gehiago izango lukete turistik. Guztia interesa da, tristea da aitortzea, baina interesa da!

Leire / [www.goiena.net](http://www.goiena.net)

**DIRUA AURREZTEKO ERA  
BAT ERE BADA**

Interesa? Agian egongo da baina nik uste dut BNG alderdiak aurrezteketa bide gisa proposatu duela ordua ordubete atzeratzaren kontua. Kanarietan bezala, alegia. Kontua da klimak ere baduela eragin zuzena Galiziako puntu askotan. Esaterako, udaran beranduago berotzen du eta neguan oso azkar iluntzen du. Horrek, noski, eragina dauka energia aurreztekero orduan. Eta interesa dagoela diozu Leire. Azken finean interesa dago, bai. Izan ere, dirua aurrezteko beste

era bat da, ezta? Gainera turismoa erakartzeko beste pauso garrantzitsu bat izango da. Dena den, ez dutuste oso aurrera egingo duenik proposamen horrek. Zer pentsatuko dute Fragak eta Espania batu eta solidu bat nahi duten alderdiek?

Jon / [www.goiena.net](http://www.goiena.net)

**ERABAKI DENETAN  
DAUDE INTERESAK**

Askotan bidaiatzen dut Galiziara lan kontuak direla-eta. Beraz, oso ondo datorkit Galiziara iri-

**WWW.GOIEA.NET**

**Galizian ordua ordubete  
atzeratzea eskatu du  
BNGK. Ondo deritzozu?**



Zure iritzia eman nahi baduzu jo [www.goiena.net](http://www.goiena.net) webgunera

tsi eta ordubete atzeratzea nire erlojua, kar, kar. Eta telebista kate ezberdinak tertulietan entzun dudan bezala bi ordu atzeratzea nahi badute, perfekt! Ikusten duzu, Jon, hemen dena da interesa... Mundua interesak mugitzen du eta!

Kike / [www.goiena.net](http://www.goiena.net)

**EGIN DEZATELA NAHI  
DUTENA GALIZIARREK**

Galiziarrak ados badaude eta herriak nahi duena hori bada, eman diezaiotela arrazoia! Zergatik ez dute ordubete atzeratuko herriaren garapen ekonomikorako ona bada? Niregatik atzeratutako dezatela, Kanariar Uharteek ordutegia atzeratuta dauka ezta? Galiziak berdin egin beharko luke. Hori bai, erreferendum egin beharko da herrian eta ondoren erabaki. Alderdi txarrak eta ondorio negatiboak ere aztertu beharko dituzte.

Iker / [www.goiena.net](http://www.goiena.net)

**HEDABIDEEK GALERAK  
IZANGO LITUZKETE**

Komunikabideetan entzun dut zenbait programak audientzia galduko luketela Galiziako ordu aldaketagatik. Horrela bada, ez da ordua aldatuko medioek eta atzean dauden enpresek indar handia dute-eta.

Peru / [www.goiena.net](http://www.goiena.net)



## Egunkarietako harribitxiak

### EUSKALDUNOK LOTIENAK EI GARA

Euskaldunok gara Estatuan lo gehien egiten dugunak, koltxoi-etxe batek egindako inkestaren arabera. Batez beste 7,15 ordu egiten dugu lo egunero. Goizen oheratzen garenak ei gara, baina baita goizen altxatzten garenak ere. Bestalde, barruko arropan lo egitea beste batzuei baino gehiago gustatzen ei zaigu.

'Gara'  
2006-12-09



### OHRID LAKUA, EZTANDA EGITEKO PUNTUAN

Europako laku zaharrena da Ohrid eta Mazedoniako turismogune garrantzitsuena. Sakon-sakonean I. Mundu Gerrako milaka lehergailu ditu, eta, adituen esanetan, "edozein unetan eztanda egin lezakete". Horrez gain, lakuan inguruan dauden Galicica eta Markovski mendietan aurki daitezke herdoildutako kaskoak, metraila eta kartutxoak. Adituen esanetan, bertako

agintariek duela hamarkadak daukate gerrako artefaktu horien berri, baina baliabide teknikoen faltagatik ezin ei dituzte deuseztatu. Kontuak kontu, orain arte ez da ezer gertatu, baina neurriak hartu beharko liratekeela azpimarratzen dute: 300.000 lagunek bisitatzen dute urtero laku, eta udan, 100.000 inguruk bainua hartzen du.

'Noticias de Gipuzkoa'  
2006-12-09



## Zorrozailea

### Beste bat (arte)



rua zehatz-zehatzta izateak ere ez du lana errazten.

Bailaratik kanpo bizi izanda (baina ez urrutia: gezurra dirudi zenbat alda daitekeen kultur panorama, eta bizimodua oro har, 45 kilometro harantzago eginez gero), lokarri garrantzizko izan da niretzat sorterriko gauzakin. Eta uste-kabe atseginen bat edo beste ere eman dit. Debagoinera aspaldion egin ditudan bisitatan, behin baino gehiagotan harrituta geratu naiz baten batek ezagutu nauelako inpresioa izanda (eta seguru ez zuela Poeta ezagutzen), harik eta ASTELEHENKO GOIENKARIKO zutabeak ditxosozko argazkia daramala ohartu arte.

(Behin-behineko) despedidarako ordua da, beraz, eta Zutabegile hau orain badoa, beste bat arte. Poeta, berriz, Durangoko azokari buruzko orrieta aurkituko duzue, hor goikoak baino justizia gehixeago egiten dion argazkian (ez dut ikusi, hala espero dut). Ondo-ondo bizi, edo saiatu behintzat.

Angel Erro  
'Gara' | 2006-12-09

Gerardo Markuleta

2004ko otsailean (atzo goizean ez, beraz) idatzi nuen (nik, Zutabegileak, alegia) nire lehen-dabiziko aletxa asteleheneroko honetan. Ordenadoreko artxiboa zuzen badabil, Garzon super-epai-learen iritzi bat hartztu nuen jomuga aurrenoko zutabe harten. Eta harrezker, hilean-hilean, beti aurkitu dut asteburuko prentsan aitzakia testualen bat haren aurka edo haren glosa egiteko.

Artikulu-mota honen gaitza bikoitza da: asteburuan idatzi beharra dago, asteburuko prentsatik ateratako zerbaiteen gai-nean. Izango da ni baino bizkorragorik langintza honetan, baina egunkarien errepasoarekin, zeri buruz idatzi erabaki-tzearekin, eta zutabeaz "ereditzearekin", ia akabo aste-akaberria! Letragune (karakter) kopu-

"Bailaratik kanpo  
bizi izanda (baina  
ez urrutia) lokarri  
garrantzizko  
izan da niretzat  
sorterriko gauzakin"

"(Behin-behineko)  
despedidarako  
ordua da, beraz,  
eta Zutabegile hau  
orain badoa, beste  
bat arte"

## Tira, tira...



Montxo 'Berria' | 2006-XII-09

## Egunkarietan irakurri dugu

### 'Gara'

#### IRAKEN EGOERA GOGOR ETA KONPLEXUA

Zapalduetako herriaren irudia da Kurdis-tanena; batzuetan sarraskitua eta bestean erabilia, bai lantzen punta gisa ondoko herrien kontrako ekintzetan, bai laguntzale gisa Irakeko inbasioan bezala. Azken finean, Irakiki dagokionez, helburua ez zen kurduen beharrei erantzutea, ezta bestela-ko herrialdee ere.

Editoriala  
2006-12-09

### 'Berria'

#### INFORMEA

Egoeraren gaineko azterketak, behintzat, asmatu du: "Irakiki anabasa handia dago, eta okerrera doa". Anabasa horren erantzule AEbek 2003an hasitako okupazioa dela esa-tea, ordea, saihestu egin du informeak. Dena den, egoera berriz bideratzen hasteko, AEBetako tropak erretiratzen hasi behar direla dio ISGk.

Koldo Aldabe  
2006-12-09

### 'El Mundo'

#### GAZTELERA GUTXIAGO UMEENDAKO

Erljioia zegoen bezala geratuko da. Boluntarioa izango da eta kontuan hartuko da ikas-turtea gainditzea. Gertatzen dena da gura-soen %95ek aukeratzen dutela Erljioia, eta ez haren alternatiba. Exekutiboari pentsa-razi beharko lioke datu horrek, Bigarren Hezkuntzarako prestazten ari den errefor-maren harira.

Editoriala  
2006-12-09

### 'Noticias de Gipuzkoa'

#### ATZERA MARTXA BOLIVARIANOA

Estatu-arrazoia izan zen Espainiako eta Venezuelako gobernuak bultzatu zituena sinatzen 80ko hamarkadan milaka euskal errefuxiaturen *asilo politikoa*. Orduan inork ez zuen ahoa ireki. Halako zenbat kompro-miso hutsean geratu diren. Bainaz dio axo-la, ETArre 10 ura egiteko akordioak bes-terik ez dira-eta.

Editoriala  
2006-12-09

# KIROLA

- Aitor Mendizabal DV pilota txapelketatik kanpo geratu zen zapatuan | 16
- Ford Mugarri eskubaloi taldeak 29-32 irabazi du lehenengo itzuliko azken lehia | 18

Jone Muxika  
Gipuzkoako ziklo-  
kros txapeldun  
berriarekin izan  
gara | 16

## PREFERENTE MAILA

ALOÑA MENDI

**2-2**

ZARAUTZ

**Aloña Mendi** | Otamendi, Lopez (Bazan, 65. min.), Olalde, Martin (Astigarraga, 45. min.), Sanchez (I. Arregi, 74. min.), Elgarresta, Astola, U. Arregi, Garai, Idigoras eta Camino.

**Zarautz** | Jaka, Igor, Aranguren, Apalategi, Errasti, Ruiz (Josu, 91. min.), Carlos (Eneko, 70. min.), Lizaso, Alex (Garro, 55. min.), Arregi (Unax, 55. min.) eta Elorriaga.

**Golak:** | 0-1, Ruiz (9. min). 0-2, Elorriaga (35. min.). 1-2, Iker Olalde (42. min.) eta 2-2, Xabi Camino (87. min.).

**Epailea** | Gallego jauna. Lan erraza zena, berak bakarrik zaildu zuen bere jokabidearekin. Hainbat txartel atera zien bi taldeetako jokalariei eta bi taldeak 10 jokalarirekin utzi zituen.

**Bestelakoak** | Euria eta hotza egin arren jende dezena joan zen Azkoagainera partidua ikustera.

### Bikain

#### Taldearen erreakzioa

Lehen zatiko jokoak ikusi ondoren, ez zirudien Aloñak gora egingo zuen; baina 0-2koarekin taldea berpiztu egin zen, eta bera izan zen bigarren zatian jaun eta jabe

### Kaskar

#### Taldeak egindako defentsa

Hasieratik Aloñaren defentsa ez zen fin aritu; atzeko lerroan nahiko huts egin zituzten eta baloi ugari galdu, baina zelai gainean ez zuten inoiz lekurik galdu, eta horrek taldeko jokoari lagundu zion

### Esandakoak

"Gaurko partiduak konfiantza eman digu. Orain arte ahul samar aritu gara, eta lortutako puntuak taldearen animuan ere nabarituko da. Bigarren zatian ez du kolorerik izan partiduak eta guizan gara garaipenaren bila erasora jo dugunak".

**AITOR ORUETA |**  
ALOÑAKO ENTRENATZAILEA



Xabi Caminok lortu zuen partidua amaitzean zegoela berdinketa ekarri zuen bigarren gola.

JOSEKO ARANTZABAL

**FUTBOLA | AZKOAGAINERA HURBILDUTAKO ZALEEK TALDEAREN ERREAKZIOA ETA KONFIANTZA IKUSI ZUTEN**

## Puntu bat baino gehiago merezi izan zuen Aloñak

*Aloña bolada txarrean dago; baina konfiantza hartzen ari da, eta atzo, maldan gora jarri zitzzion partiduari buelta ematea lortu zuen*

Jasone Zabala

Azkoagaineko futbol zelaian bi zati zeharo ezberdinak ikusi genituen atzo. Aloñak aurrean Zarautz liderra zuen, talde sendoa, bai aurrean eta baita atzealdean ere.

Lehen zatian, etxeko taldea zelaian ondo kokatu gabe ateraz, eta Zarautzak ez zuen denbora asko behar izan lehen gola sartzeko. Hala, 8. minutuan, falta jauntiketa baten bitartez lortu zuten; golegilea Xato izan zen.

Etxeko taldeak nahi bai, baina ezin zuen, eta Zarautz hainbat aukera sortzen ari zen. Otak defendatutako atean.

Aloñak gora egin zuen pixkanaka, baina kosta egiten zitzzion aukerak sortzea. Defentsan ere huts dezente egiten ari zen. Oruetaren taldea, eta Zarautzak ederki aprobetxatu zuen kontraerasoan ateraz eta aukerak sortzeko. Hala, 40. minutuan epaileak penaltia adierazi zuen. Zarautzen alde, eta Elorriagak sartu zuen 0-2koa. Emaitzaz horrengan bazirudien Aloña behera etorriko zela, baina epaileak 42. minutuan Lizaso kalera bota zuen bigarren txartel horia atera ondoren, eta Zarautz 10 jokalarirekin gelditu zen. Hurrengo

kin bazirudien Aloña behera etorriko zela, baina epaileak 42. minutuan Lizaso kalera bota zuen bigarren txartel horia atera ondoren, eta Zarautz 10 jokalarirekin gelditu zen. Hurrengo

**Epaileak 8 txartel  
hori eta 2 gorri  
atera zituen; ez  
zuen lan ona egin**

**Liderraren aurka  
lortutako puntuak  
konfiantza emango  
dio Oruetaren  
taldeari**

jokaldian, Olaldek sartu zuen etxe koentzat gola eta taldea berpiztu egin zen. Atsedenaldira 1-2ko emaitzaz heldu ziren.

**BESTE ITXURA BAT**  
Bigarren zatian, Aloña partiduaren bila ateraz, eta lehen minututik erasora jo zuen.

Zarautzak argi zeukan zer egin behar zuen, Aloñaren hutsen bat aprobetxatu partidua erabakita uzteko, baina etxeko taldeak ez zion aukera hori eman. Dena den, Aloñak ez zuen defentsako lana askorik hobetu, eta gainera 80. minutuan epaileak Astola kalera bota zuen. Buruarekin baino bihotzarekin gehiago jo zuten aurrera eta gogo horrek bere fruituak eman zizkion Aloñari: Caminok, 88. minutuan berdinketaren gola lortu zuen eta.

PREFERENTE MAILA



ARTXIBOA

Argazkian, Zubikarai baloia gidatzen, bere taldeko Gotzon begira duela.

## Puntuak banatu zituzten Aurrerak eta Mondrak

AURRERA	MONDRA	1-1
Aurrera   Xabier, Endika, Eladio, Asier, Badiola, Gabella, Ugalde, Andres, Aramaio (Vazquez, 80. min.), Ugarte eta Amorebieta (Arkotxa, 70. min.).	Mondra   Ander, Loiti (Argider, 88. min.), Andoni, Markel, Lasiur, Gotzon (Pavon, 78. min.), Losada (Muxi, 46. min.), Arkaitz, Heriz (Zubikarai, 52. min.), Lopez eta Aranbarri.	Golak: 0-1, Heriz (21. min.). 1-1, Ugarte (27. min.).
Epalea: Mitxelen jauna. Ez zuen bere lana ondo bete. Baino hartutako erabakiek ez zuten emaitzan eraginik izan.		

### Mireia Bikuña

Berdinetarekin bukatu zen Aurrera eta Mondra taldeek egubakoitzean jokatutako partidua. Hala, jokoan zeuden puntuak banatu egin zituzten bi taldeek.

Arrasateko taldeak partidua irabazteko gol aukerak izan zituen; eta baita galtzeko ere. Hortaz, Mondrako entrenatzai-leak ontzat eman zuen Zaldupe futbol zelaian lortutako puntuoa: "Partiduko azken gol aukera gurea izan da. Baino partidua orokorrean ikusita emaitza justua izan dela uste dugu".

### GOLAK, LEHEN ZATIAN

Egubakoitzeko norgehiagokako bi golak lehen zatian lortu ziren.

Mondra aurreratu zen 21. minutuan, Julen Herizek egindako golari esker. Sei minutu geroago, berdindu egin zuen Aurrera taldeak. Ugarte izan zen golegilea.

Tarte hartan Mondrak menderatu zuen partidua. Bada, bi taldeek sortu zituzten gol aukerak.

Bigarren zatian, berriz, etxe-ko taldeak hobeto jokatu zuen: "Aurrerak jokalari handiak ditu. Min handia egin digute estrategia jokaldietan, batez ere falta jaurtiketan eta korner erdiraketan", esan zigun Igor Gordobilek.

Lehenengo zatian gertatu bezala, bigarrenean ere aukerak bi areetan egon ziren. Hala, Mondrak izan zuen garaipenaren gola egiteko azken aukera; baina Lopezen burukada kanpora joan zen.

### Bigarren erregionala



JOSETXO ARANTZABAL

### GOL BARIK BUKATU ZEN DEBAGOIENEKO DERBIA: 0-0

Bigarren erregionalako hamahirugarren jardunaldiari zegokion partidua jokatu zuten zapatuan Elgetak eta UDAk. Eta Unbe futbol zelaian jokatutako derbian ez zen golik egon. Hain zuzen, puntuak banatu zituzten bi taldeek. Hala, Elgetak 25 puntu ditu sailkapenean eta UDAk, 16. Maila horretako liderra Antzuola da, 32 punturerek.

### Bigarren erregionala



JOSETXO ARANTZABAL

### ANTZUOLAK 3-1 IRABAZI ZION BTLS-RI DERBIAN

Antzuolako taldea lider sendoagoa da, zapatuan Bergarako BTLS taldeari nagusitasunez irabazi eta gero. Lehen zatian, Antzuolak hobeto jokatu zuen eta hiru golak zati hartan egin zituen: bi gol Godoik sartu zituen eta hirugarrena Agirrek. Bigarren zatian, berriz, ez zen jokorik ikusi eta bergararren gol bakarra Alberdik sartu zuen amaieran.

## Partidua irabazteko aukerak izan zituen UDAk

UROLA  
0-0  
UDA

### Mireia Bikuña

UDAk Argixao futbol zelaian jokatu zuen egubakoitzean Preferente mailako hamalaugarren jardunaldiko partidua. Eta Urolaren aurkako norgehiagokan ez zen golik egon.

### GOL AUKERA ASKO

Gol barik amaitu zen partidua; baina UDAk aukerak izan zituen Zumarragan jokatutako lehia irabazteko. Norgehiagoka hasi orduko, baloia zutoinera bidali zuen Aretxabaletako taldeak.

Partidua amaitzeko hamar minutu falta zirela, berriz, UDAko Erikok norgehiagokako aukera garbiena izan zuen gola egiteko, baina Urola taldeko jokalari batek baloia desbideratu zuen.

UDAk menderatu zuen goitik behera egubakoitzeko partidua, eta Urola taldeak ez zuen behin ere errematatu.

### Emaitzak eta sailkapenak / Preferente maila

EMAIZAK	SAILKAPENA	Puntuak						
		J	I	G	B	GA	GK	
Aloña Mendi-Zarautz	2-2	1. Zarautz	32	14	10	2	26	9
Zestoa-Trintxerpe	2-2	2. Anaitasuna	25	14	7	3	20	11
Aurrera-Mondra	1-1	3. Mondra	25	14	7	3	18	11
Ordizia-Idiazabal	4-0	4. Hernani	23	14	7	5	2	30
Hondarribia-Berio	1-2	5. Touring	22	14	6	4	4	24
Hernani-Anaitasuna	2-1	6. Berio	22	14	6	4	4	20
Pasaia-Touring	3-2	7. Zestoa	22	14	6	4	4	18
Martutene-Mutriku	1-1	8. Ordizia	21	14	6	5	3	16
Urola-UDA	0-0	9. Pasaia	19	14	5	5	4	22
		10. Trintxerpe	19	14	5	5	4	16
		11. UDA	17	14	4	5	5	11
		12. Aloña Mendi	16	14	4	6	4	20
		13. Idiazabal	14	14	3	6	5	13
		14. Urola	13	14	2	5	7	8
		15. Aurrera	13	14	2	5	7	15
		16. Hondarribia	13	14	3	7	4	10
		17. Mutriku	12	14	2	6	6	11
		18. Martutene	11	14	2	7	5	15

### HURRENGOAK

UDA-Zarautz
Trintxerpe-Aloña
Mondra-Zestoa
Idiazabal-Aurrera
Berio-Ordizia
Anaitasuna-Hondarribia
Touring-Hernani
Mutriku-Pasaia
Urola-Martutene

### Labur

## Pixkanaka gorantz begira hasi da Bergara

Partidu garrantzitsua irabazi zuten eguztenean Bergarako lehen mailako erregionalako taldeak. Erreenteriako Union Txiki taldea izan zuten aurrean, eta 0-2 irabazi zioten.

Partidu hasiera kaskarra izan zuten Nekaren mutilek, baina poliki-poliki nagusitzen joan ziren, eta aukera garbi batzuk ere sortu zituzten. Hala eta guztiz ere, atsedernaldira berdinaketa heldu ziren, 0-0.

Bigarren zatian, berriz, etxe-koek jokatzen utzi zieten bergararrei, eta Bergarak bi gol egin zituen: lehena Baltzategik sartu zuen 10. minutuan eta bigarrena, 20. minutuan Imanolek, penaltiz.

- EUSKADIKO TXAPELKETA

# Lehen itzuliko azken lehia irabazi zuen Ford Mugarrik

*Basaurin  
irabazi zuten  
Euskadiko  
txapelketako  
lehen itzuliko  
azken partidua*

**BASAURI**  
**29-32**  
**FORD MUGARRI**

**Basauri** | Martin, Penacho (3), Martin (9), Aldama (4), Santander, Borja (3), Fernandez (1), Sanchez, Acebedo (2), Perez (1), Uribarri (6), Gartzia eta Bellido.

**Ford Mugari** | Trufo, Valle, Jonan, Eneko, Peio, Arkaitz (2), Rafa (2), Aitor (6), Garikozit (4), Iker, Andoni (5), Kepa (5) eta Otegi (8).

**Golak:** Atsedenean, 14-19.



ARTXIBOA

Kepa Isasmendik bost gol lortu zituen Basaurin jokatutako norgehiagokan.

Mireia Bikuña

Hamasei punturekin amaitu du Ford Mugari Arrasatek Euskadiko txapelketako lehen itzulia. Hala, jokatutako hamahiru partiduetatik, bi berdindu, lau galdu eta zazpi irabazi dituzte; azkena atzo, Basauri taldearen aurka. Talde bizkaitarra maila honetako talderik indartsuenerikoa da.

## ABANTAILA HASIERATIK

Etxetik kanpo eta Basaurin jokatu arren, Ford Mugarriko jokalariak ezustekoa emateko asmoz irten ziren kantxara. Hala, norgehiagokaren hasieratik tarte zabaldutzen markagailuan. Halaber, etxeo taldeak ahalegina egin zuen errenta murrizteko; baina ez zuten lortu. Atsedenean arrasatearrak ziren nagusi, 14-19.

Bigarren zatian, norgehiagokak bide beretik jarraitu zuen. Ford Mugarriko agintzen zuen markagailuan. Bada, lehia asko nahastu zen azken ordu laurdeean. Epaileek behin eta berriz egotzi zituzten Arrasateko jokalariak. Hala, Ford Mugarriko minutu asko jokatu zituen lau jokalariekin. Edozelan ere, gai izan zen markagailuan zuen errenta mantentzeko.

## TRUFO ATEZAINA, BIKAIN

Ford Mugarriko atezaiznak izan ziren protagonista lehiako jokaldirik erabakigarrienean. Epaileek Valle atezaizna bi minutuz egotzi zuten. Halaber, penaltia adierazi zuten etxeko alde. Ordezko atezaizai Trufok penaltia geratu zuen eta baita partiduko azken hiru minutuetan Basaurik egindako jaurtiketa guztia ere.

**BEÑARDO BALERDI** | FORD MUGARRI TALDEKO ENTRENATZAILEA

## “Orain, gure helburua da sailkapenean ahalik eta goren geratzea”

Mireia Bikuña

**Txapelketako lehen itzulia amaitu zuen atzo Ford Mugarrik Basaurin jokatutako norgehiagokarekin. Orain arte egindakoaz hitz egin dugu taldeko entrenatzaile Beñardo Balerdirekin.**

**Hamasei puntu lortu dituzue lehen itzulian. Gustura zaudete orain arte egindako lanarekin?**

Egia esan, bai. Ez genuenuste hain ondo egongo ginenik. Zaila da beti maila berrira ohitzea, baina gu nahiko ondo moldatu gara; eta azkar, gainera.

**Denboraldi hasieran zenuten helburua aldatu egin da?**

Bai. Denboraldia hasi genuen gure helburu nagusia mai-

lari eustea zen. Horrenbestez, lehen itzulian egindako lana kontuan hartuta, gure helburua beste bat da: sailkapenean ahalik eta goren geratzea, hain zuzen ere.

**Zein da Euskadiko Txapelketak duen ezaugarri aipagarriena?**

Nik bi aipatuko nituzke: batek, maila honetan joko azkarra egiten dela. Talde gehienek oso azkar jokatzen dute eta defentsa

**“Maila honetan, etxetik kanpo partiduak irabaztea oso gaitza da”**

sendoak dituzte; eta bigarren ezau garria da etxetik kanpo partiduak irabaztea oso gaitza dela. Partidu horietan, epaileek zalan tzaren bat dutenean, beti egiten dute etxeo taldearen alde.

**Etxetik kanpo irabaztea gaitza izanik, sailkapenean ahalik eta goren geratzeko gakoa etxeo partiduetan dago?**

Duda barik etxeo partiduak irabazi behar ditugu. Lehen itzulian lan ona egin dugu Arrasaten jokatutako partiduetan. Erromoren aurka izan ezik; huts galanta egin genuen partidu hura galdu da.

**Lehen itzuliko partiduak jokatu ondoren, nolako maila dute Euskadiko Txapelketako taldeek?**

Bost talde daude maila bikaina dutenak: Lea, Elgoibar, Egia,



Beñardo Balerdi.

Barakaldo eta Basauri. Horien artean egongo da lehia bizien. Beste maila batean, eta Errromogu geu gaude. Eta atzetik, mailari eutsi gura dioten gainerako taldeak.

Goiko bost taldeek gure aurka jokatuko dituzten partiduetan egongo da igoera faserako txartela eskuratzeko giltza. Txapelketako epaileak izango gara.

- TALDEEN EGOERA

**Talde batzuek partiduak aurreratu eta beste batzuek atseden izan dute**

Jasone Zabala

Joan den astean izandako zubia dela-eta, talde batzuek aurreratu egin dituzte partiduak eta beste batzuek, aldiz, atseden izan dute.

Esaterako, Euskadiko Txapelketan ari diren Vercol Aloñako neskek Andoainen jokatu beharreko partidua duela bi aste jokatu zuten eta irabazi egin zuten. Datorren astean, Portugalete izango dute Zubikoan aurkari. Maitaneren neskak hirugarren postuan daude sailkatuta eta igotzeko aukera handia dute.

## LEHENENGOKO TERRITORIALA

Lehenengo territorialari dago kionez, aste bukaeran atseden izan dute.

Bergarako taldekoak, oraindik ere, joan den astean lortutako garaipena eta eskuraturako sailkapeneko lehen postua ariko dira ospatzten. Abenduaren 17an Leitzaran taldeari egin beharko diote bisita, eta orain arteko maila bikainari eusten saiatu.

Arrasate Eskubaloia, aldiz, berargarren talde berean dago, baina haren egoera zeharo bestelakoa da: sailkapeneko azken postuan daude. Orain arte partidu bakarra irabazi dute, hain justu, bergararren aurkaria izango den Leitzaran taldearen aurka. Datorren domekan, abenduak 17, Urnieta egin beharko diote bisita, eta denboraldiko bigarren garaipena lortzen saiatu beharko dute.

## Sailkapena

### EUSKADIKO TXAPELKETA

Puntuak	
1 Tecnifuelle Elgoibar 11	21
2 C.D. Egia Servi-Chap 11	21
3 Lea Corazonistas	18
4 Calmec Barakaldo**	16
5 Ford Mugari Arrasate	16
6 Luk Internacional Basauri*	16
7 Balonmano Romo Indupime	13
8 Gure Jorge Fernandez	12
9 Seyce Escolapios	9
10 Askartza UPV*	9
11 C.B. Portugalete*	9
12 Urola Lazpi*	8
13 Donibane Majestic	4
14 Zarautz KE	2

\* Partidu bat gutxiago

\*\* Bi partidu gutxiago

• LEHENENGKO MAILA

# Liderra menderatu ostean, Mugarri Alkesa bigarrena da sailkapenean

*Padura taldearen aurka partidu bikaina jokatu zuten arrasatearrek; hala, Arrigorriagako taldeak ligako hirugarren partidua galdu zuen*

MUGARRI ALKESA	<b>86-73</b>
PADURA	
<b>Mugarri Alkesa</b>   Jagoba (23), Imanol, Ander, Beñat (9), Antxon (6), Gorka (21), Iker (17), Iñigo eta Paul.	
<b>Padura</b>   Cabello (19), De Juan (18), Carvajal (2), Nieve (4), Martín (8), Luque, Martínez (11), Arenas, Aparicio (2), Pena, Madarriaga (9) eta Gomez.	

Mireia Bikuña

Abenduaren 6an jokatu zuten Mugarri Alkesak eta Padurak hamahirugarren jardunaldiari zegokion partidua. Arrigorriagako taldea lehen mailako lidearra zen Iturrieko partidua jokatu aurretik, baina Arrasaten galdu ostean asko aldatu dira gauzak sailkapenean. Hala, Mugarri

Alkesak sailkapeneko bigarren lekura salto egin du; Mapy.tv taldeak baino garaipen bat gutxiago dute arrasatearrek. Halaber, Padura taldeak atzerapausoa eman du hirugarren partidua jarraian galdu ondoren; sailkapeneko hirugarren da orain talde bizkaitarra.

#### HASIERATIK AGINTZEN

Hasierako minututik agindu zuen markagailuan Mugarri Alkesak. Lehenengo bi jaurtiketak etxeko taldeak egin zituen; hiruko jaurtiketak izan ziren.

Baina Padura taldeak berehala harta zuen errenta markagailuan. Edozelan ere, tarte hartan errenta gehienez lau puntu-koia izan zen bizkaitarren alde. Hain zuzen, Padura taldea iritsi zen lehen tartearen amaierara abantailarekin, 22-24.

Bigarren laurdenaren hasieran, berriz, etxeko taldeak 7-ko partziala egin zuen. Hala, berriro harta zuen abantaila markagailuan. Padura taldeak, aldi, ez zuen punturik lortu hirugarren minutura arte.



ARTXIBOA

Antxon Hernandezek, Beñat Barberenak eta Iñigo Arregik partidu ona jokatu zuten.

#### HIRUGARREN LAURDENIA

Iturripen jokatutako partidua hirugarren laurdenean erabaki zen. Laurdenea hasteko Gamarra hiruko hiruko jaurtiketa egin zituen jarraian. Mugarri Alkesaren hurrengo bi jaurtiketak ere hirukoak izan ziren. Horregatik guztiagatik, tarte hartan

Arrasateko taldeak 19 puntuko errenta izan zuen: 60-41.

Eta partiduaren azken tartean errenta mantentzen jakin izan zuen Zurututzaren taldeak. Padura taldeak errenta murritzeko hiruko jaurtiketa asko egin zituen. Edozelan ere, ez zuen aukerarik izan lehia irabazteko.

**Hirugarren  
tartearen hasieran,  
hiruko bost  
jaurtiketa lortu  
zituen Mugarrik**

• GAZTE MAILA

## Eskoriatzaren erreakzioa berandu heldu zen, eta ezin izan zuen partidua irabazi

ZARAUTZ	<b>51-37</b>
ESKORIATZA	

Asteleheneko Goienkaria

Zapatuan jokatu zuten Zarautzen Eskoriatzako gazte mailako neskek, eta ezin izan zuten garai-penik lortu.

#### LEHEN ZATIAN GAIZKI

Lehen laurdenea ez zuten ondo hasi, partiduan sartu ezinik ibili ziren, eta zarauztarrek 8-0ko partziala egin zieten. Bigarren laurdenean Josu Vaqueroren neskak baloia mugitzen eta joko hobea egiten hasi ziren, nahiz eta



Gazte mailako neskek bederatzi partidu jokatu dituzte, eta lau irabazi.

etxekoek markagailuko abantaila mantentzen jarraitu zuten.

Bigarren zatian hobeto jokatu zuten eskoriatzarrek, eta mar-

kagailuan hurbildu egin ziren, jokoak hobetu eta gero, baina ez zen nahiko izan partidua irabazi ahal izateko.

• GAZTE MAILA

## Bergarak ederto erakutsi zuen bere nagusitasuna Legazpiaren aurka

*Bergararrek ez zuten ondo hasi partidua, baina 48 puntugatik irabazi zuten Legazpin*

Asteleheneko Goienkaria

Bergarako gazte mailako neskak sailkapenean goialdean jarraitzen dute, zapatuan Legazpin 30-78 irabazi ondoren.

Partidua ez zen hasi bergararrek nahi zuten bezala; izan ere, lehen laurdenean, nahiz eta kantxa osoan presioa egin ber-

gararrek, ezin izan zuten lehen zazpi minutuetan punturik sar-tu. Hala, laurdenea berdinketa-rekin amaitu zen, 8-8. Bigarren

laurdenean, berriz, Jokin Perezez zuzentzen duen taldeak presio defentsa egoki egin zuen eta bere fruktua eman zizkion: legazpiarrei 24-6ko partziala sartu zieten laurden hartan.

#### PARTZIAL HANDIENA

Hirugarren laurdenerako bazu-ten abantaila markagailuan, baina presio defentsarekin jarraitu zuten, eta etxeko tal-dea erasoko jokorik egin ezinik zebilen. Hala, laurdenean hartan egin zieten bergararrek par-tzial handiena, 3-26, eta orduan hautsi zen partidua.

Laugarren laurdenean, abantailari eusten jarraitu zuten, eta baita handitu ere. Azkenean ere, nahiko erraz irabazi zuten Bergarako neskak.



**EMAKUMEZKOAK**



**OHOREZKO GAZTEAK**



**NESKAK, KADETEAK**



**OHOREZKO KADETEAK**



**PREFERENTE MAILA**

**Goiko ilaran, ezkerretik hasita:** Jon Ander Elgarresta, Iñigo Arregi, Iban Astola, Xabier Carpintero, Iker Maiztegi, Gorka O Erdiko ilaran: Xabier Elgarresta, Unai Moyua, Aitor Lopez, Niko Reherman (delegatua), Ismael Egaña (2. entrenatzalea), Ai Beheko ilaran: Jon Astigarraga, Andoitz Biain, Mikel Sanchez, Julen Barrena, Javier Aspiazu (presidenteoa), Jokin Gara

# **Futbol Elkartearen 06-07. urteko saila**



tamendi, Iñigo Zubia, Roberto Idigoras, Jagoba Martín, Iker Olalde eta Iñigo Idigoras.  
itor Orutea (entrenatzailea), Jesus Barbero (prestatzailea), Xabier Camino, Aritz Garmendia eta Iker Aramendi.  
i. Aratz Losada, Unai Arregi eta Henry Bazan.

## **OHOREZKO INFANTILAK**



INFANTILAK, TXIKIAK



ALEBINAK



TXANTXIKU IKASTOLA- NESKAK



**Pilota**

• PROFESIONALAK

## **Titin eta Nalda III.ak irabazi zuten Bergaran**

*Gonzalezek eta Lasak osatutako bikotea 22-16 hartu zuten mendean Bergarako Udal pilotalekuau*

Mireia Bikuña

Atzo arratsaldean, Bergarako pilotalekuau jokatutako jaialdiko bigarren partidua izan zen. Titin eta Nalda III.ak gerriko gorriarekin jokatu zuten; Gonzalez eta Lasa III.ak, urdinarekin. Lehen sakea bikote urdinari egokitutako zitzaison. Baina, lehenengo hiru tantoak gorriak izan ziren. Gonzalez eta Lasa III.ak hiruna berdindu zuten; ondoren, bost tanto jarraian egin zituzten. Hala, abantaila hartu zuten markagailuan: 4-6.

Titin eta Nalda III.ak berehalako berdindu zuten partidua. Seinako berdinketarekin, bikote gorriak zabaldu zuen berriro tarteak markagailuan, 10-6.

**ERRENTA MANTENDU**

Lau tantoko abantaila hartu ondoren, bikote gorriak errenta mantentzen jakin izan zuen partidua bukatu arte.

Bada, tartean, Gonzalez eta Lasa III.ak errenta murriztu zuten bi tantora; 11-9 eta 15-13 hurbildu ziren markagailuan.



Titin sakea egiteko gertu atzoko partiduan.

JOSETXO ARANTZABAL

**NALDAK PIOTADA GUTXI**

Atzoko partiduko kakoa Iñigo Naldak egindako jokoan zegoen. Bikote gorriko atzelariak egindako hutsak aprobetxatu behar zituen bikote urdinak lehia irabazteko. Bada, Nalda izan zen atzoko partiduan pilotada gutxiem eman zituzten pilotaria. Hortik ihes egin zion lehiak bikote urdinari.

Halaber, Titinek aurreko koadroetan maisua dela erakutsi zuen. Tarteka huts batzuk

egin zituen eta tarteka errema-te onak ere erakutsi zituen; adibidez, seigarren tantoan egindako dejada.

Bergarako frontoian jokatutako partiduak ordu bat eskas iraun zuen; guztira 475 pilotakada izan zituen. Titinek bi tanto egin zituen sakez eta Gonzalezek, beste bi.

Galdutako pilotetan ere ber-dintasuna izan zen nagusi. Bi aurrelariek bina pilotak galdu zituzten atzoko norgehiagokan.

• ELGETAKO BOLETA TXAPELKETA

**XABIER OSOROK BERE NAGUSITASUNA ERAKUTSI ZUEN**

Zapataun egin zuten Elgetako Gabonetako boleta txapelketako bigarren saioa. Guztira 14 parte-hartziale izan ziren, eta hauek izan ziren zapatuko saiko lehen hiru sailkatuak: lehenengo, Xabier Osoro elgoibar-tarra, bost txirlorekin; bigarren, Bittor Rodriguez eibartarra, hiru txirlo botata; eta hirugarren, Moño berriztarra, hura ere hiru txirlorekin.

Sailkapen orokorrean, txapelketa irabazteko faborito nagusia den Xabier Osoro da lehena, bost txirlorekin, bigarren Bittor Rodriguez, hiru txirlorekin, eta hirugarren, bolatoki Joseko Monterroso, hiru txirlorekin. Txapelketako hirugarren saioa datorren zapatauan, hilaren 16an, jokatuko dute.



JOSETXO ARANTZABAL

**Frontenisca**

JOSETXO ARANTZABAL

Final-laurdenetako kanporaketak jokatu dira aste bukaeran.

## **Abenduaren 16an jokatuko dira frontenis txapelketako finalerdia**

Mireia Bikuña

Amaitzear dago Oñatioko kiroldegian jokatzen ari den VIII. Zubikoa frontenis txapelketa. Eta antolatzaleek finkatutako epeak betetzen badira, finalaurrekoak zapatuan, abenduaren 16an, jokatuko dira; finala eta kontsolazio finala, aldiz, abenduaren 23an.

**FINAL-LAURDENAK**

Aste bukaeran jokatutako Zubikoa frontenis txapelketako final-laurdenak. Etxaniz eta Zubiaurre, Rodriguez eta Sierra eta Del Rio eta Barcala bikoteak sailkatu dira finalaurrekoetarako.

Final laurdenetako azken norgehiagokoa zapatuan goizean jokatuko dute, Vallejo eta Gartzia eta Lobato eta Sieiro bikoteek.

**Pilota**

## **Mendizabalek ezin izan zuen Tolosako finalerako txartelik lortu Seguran**

Jasone Zabala

Aitor Mendizabal DV pilotak txapelketako finalaren atarian gelditu da, Etxeberriarekin batera 16-22 galdu ondoren Garraldaren (Nafarroa) eta Merinoren (Errioxa) aurka.

Hasieratik, euren erritmoa ezarri zuten Garraldak eta Merinok, eta markagailuan aldea lortu zuten, 2-6. Mendizabalek bere jokoak egin zuen, kikildu gabe, eta Etxeberriak ere ederto lagundu

zion atzoko koadroetan, baina Merinok pilotari asko ematen zion behin eta berriro atzoko koadroen bila, eta Garraldak aurreko koadroetan aukera izan zuenean bikain amaitu zituen tantoak; eta, halaxe, partidua irabazi zuten.

**MENDIZABALEN LAN ONA**

Mendizabal antzuolarra txapelketan egindako lanarekin oso gustura dago, nahiz eta Tolosako finalaren atarian gelditu den.

**Labur**

## **Arrasateko bikote bat sailkatuko da kadete mailako pilota finalerako**

Gaur jokatuko da Arrasateko Uarkape pilotalekuau kadete mailako Gipuzkoako Txapelketari dagokion finalerdia. Arrasateko bi bikote arituko dira aurrez aurre: Goitia eta Zubizarreta, Arana eta Agirre-gabiriaren aurka. Eta irabazten duenak hilaren 17an jokatuko du finala Seguran, Lasarteko edo Zarauzko bikote batzen aurka.

Jone Muxika elgetarra denboraldi bikaina egiten ari da ziklo-krosean. Atzo, Gipuzkoako txapeldun izendatu zuten Aizarnazabalen eta abenduaren 6an

Asteasun jokatutako proban ere lehenengo sailkatzu zen. Baino Asteasukoa ez da izan Muxikak aurten irabazi duen lasterketa bakarra; orain arte jokatutako beste hiru

probatan ere garaile atera da Elgetakoa. Gainera, Igorreko nazioarteko proban bigarren sailkatzu zen, Clotilde Girondo frantziarraren atzetik.

## JONE MUXIKA | ZIKLO-KROSA EGITEN DU

# “Aspaldi ibili nintzen ziklo-krosean eta berriro ere probatu gura nuen”

Arantzazu Ezkibel

**Lehenik eta behin zorionak. Gipuzkoako txapeldun berria zara.**

Bai, hala da. Zapatan erdi gaixo egon nintzen baina atzo Aizarnazabalen dena ondo atera zitzaidan. Proba oso teknikoa izan zen, lokatza askokoa.

**Eguaztenean Asteasun jokatutako proba ere irabazi zenuen. Gustura zaude lortutako garaipenarekin?**

Bai, egia esan, oso gustura nago; aurten denboraldia oso ondo doa niretzako. Hala ere, edozein momentutan min hartu eta ez dakizu ze gerta daitekeen. Lasterketetara probatzen joaten naiz, irabazteko esperantzarik gabe, eta orain arte ondo ateira zaizkit.

Eguazteneko proban, Asteasun, Clotilde Girondo zen fabrito nagusia, baina irteeran eroikoa egon zen eta txirrindulari frantziarra ere jausi egin zen. Lehenengo aldia izan da Asteasun izan naizena; izan ere, orain arte beste toki batean egin izan da Asteasuko proba eta aurten izan da lehenengo aldia Asteasun jokatu dena. Zirkuitua berria izan da, eta gustura geratu naiz. **Igorreko nazioarteko proban bigarren postuan sailkatzu zinen. Espezo zenuen halako emaitzarik?**

Igorreko proba oso gogorra izan zen. Lehenengotik martxa bizkorrean atera ginen; lehenengo bi bueltak egin eta gero hirugarren nindoan Rosa eta Rocioren atzetik. Baino hirugarren bueltatik aurrera, Rociok arazo batzuk izan zituen eta geratu egin zen; Rosa eta biok baka rrik geratu ginen, eta bigarren

postuan amaitu nuen lasterketa. **Hedabideetan ez da nesken ziklo-krosari buruz ezer esaten. Diskriminazio handia dago?**

Bai, hala da, gure lanari buruz ez da ezer esaten eta guk ere berdin izerditzen dugu. Bestalde, probetan parte hartzeagatik, kategorien arabera, mutilek diru kopuru bat jasotzen dute eta guk, berriz, irabazi arren, ezer ere ez. **Noiz hasi zenuen ziklo-kros denboraldia?**

Udazken aldean, urrian, has ten da ziklo-kros denboraldia. Errepidean aritzen den jendeak abuztuan ere lasterketak izaten ditu; beraz, haien geroxeago has ten dira. Hori norberaren arabera dago. Nik aurten ziklo-krosean probatu gura izan dut, eta horregatik abuztuan geldi egon naiz, ia bizikleta hartu gabe.

Aurten lasterketa askotan hartu dut parte: Pobesen, Karrantzan eta Orion, gero Euskadiko selekzioarekin kanpoan: Onda eta Bartzelonan. Eta azkenik Astarrian, Igorren eta Asteasun aritu naiz. Oraingoz, espero baino hobeto doaz lasterketak.

**Negu partean ziklo-krosean aritzek errepideko denboraldia pres tatzeko balio du?**

Bai, batzuek konbinatu egiten dituzte bi modalitateak; batez ere gazteek egiten dute hori. Hala, bizikleta utzi beharrik ez dute izaten, baina aldi berean oso nekagarria ere bada. Nire kasuan, aspaldi ibili nintzen ziklo-krosean eta gustura ibili nintzenez gogoa neukan berriro ere probatzeko. Oraingoz, pozik nago, eta ea ondo bukatzen dudan.

**Ziklo-kroseko zirkuituak nolakoa izan behar du zure gustukoia izateko?**

Askotan errepide zatiak ez ditut gustuko izaten, azkarre giak direlako. Gaizki ere ez naiz ibiltzen zati horietan, baina erre pidean aritzen den jendeak alde handia hartzen du hor. Lokatza, berriz, oraindik ez dut askorik probatu; beraz, ez dakit zer-nolako dudan gustuko. Teknika aldetik oraindik asko daukat ikasteko, baina hori denborarekin har tuko dut, lasterketetan.



Jone Muxika aurten irabazitako garaikurrekin, pozik.

GORKA ARIZMENDIARRIETA

**Alde handia dago errepidean edo lokatzetan ibiltzearen artean?**

Bai. Teknika da desberdina. Errepidean nahiko berdintsua da dena, baina lokatzetan, kurbak nola hartu, nola atera, bizikleta hartu... Teknika asko ika si behar da. Mugimendu aldetik, irteera bizkorak egiteko teknika batzuk ikasi beharra dago.

Eta lokatzarekin kontuz ibili beharra dago. Batzuetan, zikin zikin amaitzen duzu lasterketa; beste parte-hartzaile batzuei begiratu, eta haien ordea, garbi dau dela konturatzen zara. Beraz,

non zapaltzen duzun ere kontuan hartzeko da.

**Zer da kirol horrek duen gauza zailena?**

Kirol hori oso bortitz da. Lasterketak motzak izan arren, denbora ondo neurtu behar izaten da. Izan ere, lasterketak oso bizkorak izaten dira.

**Entrenatzeko orduan non ibiltzen zara?**

Orain arte errepidean ibili naiz. Zelaian ere aritzen naiz, baina, egia esan, askorik ez. Zelaian bueltaka pertsona bat bakarrik aritza oso luze egiten da. Horregatik, pixka bat besterik ez dut egiten, bizikleta zelan dagoen ikusteko adina.

**Egokitutako zirkuiturik badago?**

Ez. Norberak etxe ondoan duen zelaia erabiltzen du halako entrenamenduak egiteko. Ni Elgetan bertan baino gehiago Bizkai aldera joaten naiz.

**Talde batean aritzen zara ala bakarka?**

Ez daukat talderik. Enpresa batek laguntza ekonomikoa ematen dit, bizikleta prestatu ahal izateko. Entrenatzeko orduan ez daukat talderik, nire kabuz ateratzen naiz, baina errepidean ezagun asko ditudanez, beti elkarren naiz lagunen batekin.

## Ander Altube kadete mailako Gipuzkoako txapeldun

Ander Altube oñatiarra ere lan ona ari da egiten ziklo-kros denboraldian. Atzo, Gipuzkoako Txapelketa irabazi zuen Aizarnazabalen eta taldeko saria ere Ulmak irabazi zuen.

Bestalde, Asteasun eta Igorren jokatutako probetan bigarren sailkatzu zen oñatiarra. Asteasun, 29:55eko denbora egin zuen eta Igorren 28:56. Beste debagoiendar bat, Xabier Arantzeta bergarria, bederatzigarren sailkatzu zen Asteasun.



**“Neskok egiten dugun lanaren gainean ez da ezer esaten hedabideetan”**

**“Kirol bortitza da; lasterketa motzak dira, baina denbora ondo neurtu behar izaten da”**

# KULTURA

## Aisialdia eta Zerbitzuak

- Gureko egileek ere erakutsi dituzte euren liburu eta diskoak Durangoko azokan | 22-23
- Euskadiko Orkestra Sinfonikoak eta Donostiako Orfeoiak emanaldia egingo dute barikuan Oñatin | 27

### ARRASATEKO AKORDEOI LEHIAKETAK



'Actto para la  
Noche Buena'  
antzezlanerako  
sarrerak salgai  
daude | 27

#### Sariak

##### XIV. NAZIOARTEKO AKORDEOI LEHIAKETA

- Sari nagusiak:**
  - Vincent Lhermet (Frantzia)
  - Rade Mijatovic (Serbia)
  - Maria Vlasova (Errusia)
- Derrigorrezko obrari saria:** Vincent Lhermet (Frantzia)
- Publikoaren saria:** Vincent Lhermet (Frantzia)

##### GIPUZKOAKO 27. AKORDEOI LEHIAKETA

- Haur maila:**
  - Maria Zubimendi
  - Narciso Jimenez
  - Francisco Javier Calzado
- Gazte maila:**
  - Maria Jose Vera
  - Ana Serrano
  - Agurne Marichalar
- Senior maila:**
  - Leire Telletxea
  - Naiara Garai

##### II. UDALAITZ AKORDEOI LEHIAKETA

- Gazte maila:**
  - HUTSIK
  - Altor Ugalde
  - HUTSIK
- Senior maila:**
  - Amaia Iraola

##### IV. AKORDEOI ORKESTRA LEHIAKETA

Pasaiako Ilunbe orkestra

JOSETXO ARANTZABAL

Vincent Lhermetek Inazio Lakuntza Arrasateko alkatearen eskutik jaso zituen oroigarria eta txapela.

LAU LEHIAKETA ETA JAIALDI BAT | EGUAZTENEAN HASI ETA ZAPATURA ARTE AKORDEOI DOINUAK IZAN DIRA NAGUSI ARRASATEN

# Vincent Lhermet frantziarrak eroan du nazioarteko lehiaketako lehen saria

Zapatuan  
egindako galan  
eman zituzten  
aditzera  
irabazleen  
izenak; izan ere,  
eguaztenetik  
zapatura 250 bat  
akordeoilarik  
jardun dute  
Amaia antzokian  
eta Arizmendi  
ikastolan

Monika Belastegi

Aurtengo nazioarteko lehiaketaren maila alta nabarmendu zuen: "Ez nuen irabazterik espero", esan zigun sari-ematearen ostean. "Benetan formazio handiko lehiakideak egon dira", gehitu zuen. Lehen sariaz gain, derrigorrezko obraren interpretazio onenaren saria jaso zuen, eta baita Kutxak babestutako entzuleen saria ere. Guztira, mundu osoko 21 lehiakidek jardun dute buruz buru; besteak beste, Frantzia, Ukraina, Errusia, Finlandia, Serbia eta Txinakoak. Guztien artean Euskadiko ordezkari bat ere izan da, Oroitz Maiz, hain justu. Maiz bigarren itzulirako sailkatu bazeen ere, auto istripua izan zuen barikuan eta atzamarra hautsi zuenez, ezin izan zuen lehiaketan jarraitu.

Zapatu goizean eman zuten aditzera, hainjustu, Amaia antzokian egindako galan Arrasate Hiria Nazioarteko XIV. Lehiaketaren irabazlea. Vincent Lhermet frantziarrak jaso zuen lehen saria, eta hark ere lehiaketaren

maila alta nabarmendu zuen: "Ez nuen irabazterik espero", esan zigun sari-ematearen ostean. "Benetan formazio handiko lehiakideak egon dira", gehitu zuen. Lehen sariaz gain, derrigorrezko obraren interpretazio onenaren saria jaso zuen, eta baita Kutxak babestutako entzuleen saria ere. Guztira, mundu osoko 21 lehiakidek jardun dute buruz buru; besteak beste, Frantzia, Ukraina, Errusia, Finlandia, Serbia eta Txinakoak. Guztien artean Euskadiko ordezkari bat ere izan da, Oroitz Maiz, hain justu. Maiz bigarren itzulirako sailkatu bazeen ere, auto istripua izan zuen barikuan eta atzamarra hautsi zuenez, ezin izan zuen lehiaketan jarraitu.

#### BESTE HIRU LEHIAKETA

Nazioarteko lehiaketaz gain, beste hiru lehiaketa eta jaialdia ere jokatu dira aurtengo edizioan: Gipuzkoako 27. lehiaketa (21 par-

Mundu osoko 21  
lehiakidek jardun  
dute nazioarteko  
lehiaketan


Euskadiko ordezkari  
Maizek atzamarra  
apurtu eta lehiaketa  
utzi behar izan zuen

te-hartzaile), Udalaitz II. lehiaketa (lau parte-hartzaile), Akordeoi Orkestren IV. lehiaketa (bi parte-hartzaile) eta Gipuzkoako XIX. jaialdia. Guztira 250 lagunek hartu dute parte eta emanaldiak Amaia antzokian eta Arizmendi ikastolan izan dira.

Hauspoz elkarteko presidente Josean Anduagaren esanetan, edizioaren "oso balorazio positiboa" egin dute. Gehitu zuenez, "lehiaketokin lortu dugu Arrasate akordeoiaren hiriburu bihurtzea", eta aitortu zuen Arrasate dela "gure zirkuituaren gunerik onenetarikoa". Horrekin batera, emanaldion alderdi pedagogikoa ere azpimarratu zuen Euskal Herriko Akordeoi Elkarteko presidenteak.

ARRASATEKO AKORDEOI LEHIAKETAK

• ZAPATUKO GALAKO PROTAGONISTAK



**VINCENT LHERMET.** 19 urteko frantziarrak eskuratu zuen nazioarteko lehiaketako lehenengo saria. Horrekin batera, derrigorrezko obraren –Gonzalo Olabideren Vol(e)– interpretazio onenaren saria jaso zuen, eta baita entzuleen saria ere. Lhermet-en esanetan, bere nahia akordeoilari profesional gisa jardutea da, eta baita musika irakasle izatea ere. Gaur egun Musikologia ikasten dihardu Parisen, La Sorbonnen.



**AMAIA IRAOLA.** Udalaitz II. Lehiaketaren irabazle izan zen Iraola senior mailan. Jaques Mornet orkestra zuzendari eta epaimahaiko kidearen eskutik jaso zuen saria. Mornetek hitz batzuk ere egin zituen Iraolaren gainean: "Izugarri gustatu zait nola jotzen duen", esan zuen. "Etorkizun handiko akordeoilaria izango da", gehitu zuen. Le Thar Eskolako zuzendari ere bada Mornet; hara gonbidatu du Iraola astebetez.



**ILUNBE ORKESTRA.** Akordeoi orkestren lehiaketa irabazi zuen Pasaiako Ilunbe taldeak. Jose Juan Zubillagaren zuzendaritzapean *Triptico Vasco eta Fantasía Ibérica* obrak jo zituzten. Jose Antonio Hontoria epaimahaiko kidearen eskutik jaso zuten 600 euroko saria. Pasaiakoarekin batera, Andoaingo Soinuak orkestrak hartu zuen parte lehiaketan.



**KAFE KONTZERTUA.** Amaia antzokitik eta Arizmendi ikastolatik kampo ere egon dira akordeoi kontzertuak. Herritarrei instrumentu hori hurbiltzeko asmoz, egubakoitzean kafe-kontzertua egon zen Arrasateko Kajoi tabernan. *Bouquet* emanaldia egin zuten, hain justu. Akordeoilari gaztetxo ugari batu ziren eta musikariekin batera jardun ahal izan zuten emanaldiaren une batzuetan.

• PARTE-HARTZAILEEN ETA IKUSLEEN IRITZIA



VINCENT LHERMET |  
NAZIOARTEKO 1. SARIA

MARIA ZUBIMENDI |  
LEHEN SARIA HAUR MAILAN

SOINUAK AKORDEOI ORKESTRAKO KIDEAK |  
ANDOAIN

HILARIO ETA MARIA JESÚS |  
ANDOAIN

"Ez nuen lehen saria espero, batik bat gainerako lehiaki-deen maila ikusita. Oso garrantzitsua da sari hau irabaztea. Akordeoilari profesional izan nahi dut: kontzertuak eman eta irakatsi".

"Oso pozik nago. Ez nuen espero lehenengo saria jasotzerik. Lehenengoz aurkeztu gara orkestra gisa lehiaketara". Taldeko kideetako batzuk aurrez ere parte hartutakoak ziren, baina bakarka. "Batik bat parte hartzen eterri gara, lehiaketan orkestra gisa parte hartzea zer izango zen probatzera. Beldur pixka bat ere izan dugu. Irabazi duen Ilunbe taldeari dagokionez, gu baino nagusiagoak dira eta eskarmentu handiagoa dute".

"Udalaitz saileko junior mailan bigarren saria jaso du gure seme Aitor Ugalde, eta oso pozik gaude. Aurretik jaialdian parte hartutakoa zen, baina lehenengoz jardun du lehiaketan. Oso gustuko du akordeoia jotzea, eta, lehiaketan parte hartu nahi zuenez, bada, guk animatu egin dugu".

EUSKAL KULTURAREN ERAKUSLEIHOA | IBARREKO HAINBAT SORTZAILEREN LANAK IZAN DITU IKUSGAI

# Ibarreko ordezkarien lanek harrera ona izan dute Durangoko azokan

*Beste urte  
batzuetan baino  
jende pilaketa  
txikiagoa izan  
da aurtengo  
azokan; hala  
ere, Landako  
erakustazokako  
kaleetan ez da  
girorik falta izan*

Arantzazu Ezkibel

Beste urte batez euskal kultura-ren erakusleho bilakatu da Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azoka. Aurten laugarren aldiz egin dute azoka Landako erakustazokan; eta beste urte batzuetan baino jende pilaketa txikiagoa izan den arren, euskaltzaleek ez dute hutsik egin eta Goienkale, Artekale eta Barrenkale ondo girotu dituzte.

**SALMENTAK, ONDO**

Salmentei dagokienez, batzuek beste batzuek baino arrakasta handiagoa izan dute. Erakus-mahaiaurrean pilatutako ilarek ondo erakutsi dute hori; **Toti Martinez de Lezea** idazle arribarrak, esaterako, izugarrizko arrakasta izan du bere azken lanarekin, *La Brecha*. Barricada taldeko **El Drogas** egubakoitzetan izan zen, Pamielaren erakus-mahaian Barricadari buruzko liburua sinatzen, eta hark ere jende ugari izan zuen zain.

Gurera etorrira, ibarreko hainbat idazle eta musikari izan da azokan. **Ruper Ordorikaren**



Goloko taldeak eman dio amaiera aurtengo edizioari.

TXELU ANGOITIA

**Ruper Ordorikaren  
azken diskoa eta  
Pello Zabalak  
eguraldiari buruz  
idatzi duen liburua  
asko saldu dira**

*Memoriaren mapa* (Elkar) diskoaren ale asko saldu dituzte. Baita ere **Pello Zabalak** Alberdania argitaletxearekin ateria duen *Zeruan Zer Berri* eguraldiari buruzko liburua.

Besteak beste, Ohiukaren era-kusmahaian, **Potemkin, Une eta Des-krontrolen** lanak izan dira. Potemkin talde oñatiarra zapata

tuan izan zen Durangon diskoak sinatzen: "Giroa ona izan da eta jendea hurbildu da diskoa eros-tera. Hala ere, diskotxekoek esan digutenez aurten salmenta mailajaitsi egin da", aitorzu zigun Iban Idigorasek, Potemkin taldeko bateria-jotzaileak.

Liburu eta diskoez gain, bai-na, Badiharduguren erakusma-

haien ibarreko euskara eta herri askotariko aditz taulak egon dira salgai. Atzo goizean, erakusmahaian **Juan Martin Elexpuru** idazle bergararra izan genuen, Bergarako aditz taularekin.

Bada, aurtengo azokak eman du berea. Datorren urtean berri-ro ere zabalduko ditu ateak bes-te hamaika nobedaderekin.

**• AZOKAREN BUELTAZ IZAN ZIREN BESTELAKO EKITALDI BATZUK**

ARANTZAZU EZKIBEL



ARANTZAZU EZKIBEL



TXELU ANGOITIA

**GURE IRRATIA.** Uztaritzeko egoitzan jasandako sutearen ondoren, Gure Irratiko kideak Durangon izan dira dirua batzen. Landako eraikinaren atean jarri zuten kutxa gardena, eta han izan dira, egunero, euskaltzaleen babesa jasotzen. Durangora hurbildutako elkartasuna erabatekoa izan da; 13.500 euro jaso dituzte guztira.

**USB BITARTEZ MUSIKA JAITSI.** Barrenkalea 37n jarri zuten erakusmahaia MusikHerria diskotxekoek. Bertan, ordenagailu eta USB bidez euren musika jaisteko aukera eman zuten. MusikHerriko kideek esan zigutenez, Interneten ere ematen dute aukera hori, eta Durangoko azoka aprobetxatu zuten produktuak ezagutzera emateko.

**UMEEN TXOKOA.** Etxeko txikienek ere euren txokoa izan dute Durangoko azokan; haur literatura aretoan, hain zuzen. Azokaren ordutegi berean egon da zabalkik, 2-12 urte bitarteko haurrentzako txokoa. Bertan, liburuak irakurri eta jolas egiteko aukera izan dute. Horretaz gain, ipuin kontalarien bisita jaso dute txikitxoek.

DURANGOKO EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKAREN 41. EKITALDIA

• DEBAGOIENDARRAK IZAN ZIREN ERAKUSMAHAIETAN EUREN LANAK SINATZEN




ARANTZAZU EZKIBEL

Juan Karlos Irizar, eskuetan *Itsasoa* lana duela.



ARANTZAZU EZKIBEL

Gerardo Markuleta *Ezjakintasunak* poema libururekin, Alberdanian.



ARANTZAZU EZKIBEL

Aitor Uriarte UNEko abeslari eta Rober Gitarra-jotzailea, Oihukan.



TXELU ANGOITIA

Lukas Prest taldekoak zapatuan izan ziren MusikHerrian.




TXELU ANGOITIA

Juan Ramon Garai Celestino Uriarteren biografiarekin Txalapartan.



TXELU ANGOITIA

Elexpuruk bi liburu izan ditu: *Harpajolea eta Bergarako aditz taula*.



- Merkatuko lehen markak
- Mota askotako estiloak
- Gremioen koordinazioa

PROIEKTUA - DEKORAZIOA  
 **Ipar**  
project s.l.  
SUKALDEAK-BAINUAK-ZERAMIKAK

Telleria 23, D5 pabilioia  
Labegaraieta Industrialdea BERGARA  
Tel.: 943 76 98 30 Faxa: 943 76 52 44 • [www.iparproject.com](http://www.iparproject.com)





Drakesekoak bikain ibili ziren zapatuan egindako emanaldian.



Kontralei taldekoek giroari eustea lortu zuten emanaldian.

**JAIALDIA | DRAKES, KONTRALEI, TRISKANTZA ETA SOSPECHOS.O.S TALDEEN KONTZERTUA**

# Gaztetxea eskatzeko jaialdia egin zuten Oñatiko biltzarrekoek

*AGAKOkoen laguntzarekin antolatu zuten zapatuko jaialdia Arrasateko gaztetxean*

*Sarreran ordaindutakoa AHTren aurkako plataformari emango diote lagunza moduan*

Jon Berezibar

Oñatiko Gazte Asanbladak eta Arrasateko gaztetxeoak elkarrekin antolatutako jaialdia izan zen zapatu gauetako Oñatin Gaztetxe bat eskatzeko. Sei taldeek jo behar zuten baina azkenean bik kale egin eta Drakes, Kontralei, Triskantza eta Sospechos.o.s taldeek jo zuten. Orduan ere alda-ketak egon ziren eta zapietan hasteko baten ere, ez zen azkenean gauetako bederatzia pasatu arte hasi. Arrasateko gaztetxeko eszenatoki txikian egin zuten jaialdia eta jende kopuru polita gerturatu zen bertara, gehienak oñatiarrak. Giro polita izan zen jaaldi guztian zehar eta arrasatearrak ere gerturatu ziren.

Hasi, Triskantzaoak hasiziren. Kontzertua azkarra eta bizia egin zuten, ordubete eskas jo eta Kontraleikoei luzatu zieten lekuoa. Aurreko emanaldiaren jarraipena egin zuten Kontraleiko lagunek. Eta giroari eutsi zioten, inondik inora.

**DRAKES ETA SOSPECHOS.O.S**  
Gauetako kontzerturik indartsuenak Sospechos.o.s eta Drakes taldeek jo zuten. Ordutegi alda-ketak egon ziren eta zapietan hasteko baten ere, ez zen azkenean gauetako bederatzia pasatu arte hasi. Arrasateko gaztetxeko eszenatoki txikian egin zuten jaialdia eta jende kopuru polita gerturatu zen bertara, gehienak oñatiarrak. Giro polita izan zen jaaldi guztian zehar eta arrasatearrak ere gerturatu ziren.

**Eszenatoki txikian egin zuten jaialdia eta jende ugari gerturatu zen**

dekoenak izan ziren. Giroa ordu-rako ondo berotu zen eta jaialdiak martxa bikainari eutsi zion. Bikain ibili ziren biak betiko punk-rockarekin baina ikusleek zein eurek ondo gozatu zuten. Drakesekoek nabari zitzazkien oholtza gainean egindako orduak eta lehen unetik bereganatu zuten kontzertua. Gaztetxe baterako gaubela apartekoa izan zen zapatuko eta zer esanik ez Oñatiko-en eskaerei bultzada itzela emateko ere. Oihartzuna behintzat izan zuten aldarrikapenek taldeen musikarekin.

**ÖÑATIKO TALDEEN CD-A**  
Gauetako kontzertuen osagarri den CDa ere kaleratu zuen OGAK Joan den urrian. Oñatiko taldeek hartzen dute parte bilduman eta zapatuko taldeen abestiez gain Patxi Katarro, Vagueza Cronica eta Krimen taldekoak ere aurkitu daitezke lanean. Hain zuzen ere, azken bi talde horiek ziren zapatuko jaialdian jotze-koak. Guztira 29 kantuk osatzen dute bilduma eta aurtengo mar-txoan zuzenean grabatu zituzten abestiak. Euro baten truke esku-rratu daiteke CDa Portu tabernan. Dirua aurre egin beharreko epaiketetarako izango da.



Tiskantza taldeak ireki zuen zapatuko gaua

## Lucio Urtubia anarkista eta borrokalariaren hitzaldia barikuan

Aste Libertarioa antolatu dute OGAKOek Oñatiko Erauntsi Bilgunearekin batera, bihar hasi eta egubakoi-tzera arte. Hainbat ekitaldi eta hitzaldi egongo dira egitarauaren barruan. Berbaldi nagusia Lucio Urtubia-rena izango da. Anarkista horrek kaleratu berri duen biografiak zeresana piztu du eta 70 urterekin bizitzan egindako borrokaren berri emango die hitzaldira gertutakoei. Egubakoitzean izango da hori, Rodrigo Mercader de Zuazola institutuko areto nagusian, 19:30ean. Gainontzeko egunetarako, berriz, dokumentalak, filmak eta CNTko kide batzen hitzaldiak programatu dituzte. Hitzaldia eguztenean izango da Portu tabernan, arratsaldeko seietan.

**DANBAKA ))))))**  
DEBAGOIENEKO II. MUSIKA LEHIAKETA

**5. KONTZERTUA**  
**ABENDUAK**  
**15**  
Egubakoitza | 22:30  
Elgetako Kafe Antzokia

**INALECTRIK**  
ARETXABAleta

**LITTLE LITTLE MUCH**  
ARRASATE

**THE 5 TWISTERS**  
ARRASATE

**ANAL BAG**  
ARRASATE

**KAMisetak SALGAI!**

**INFORMAZIO +**  
[www.danbaka.com](http://www.danbaka.com)

ZIGILU ERAKUSKETA | AROZTEGI ARETOTIK JENDE ASKO PASA DA

# Zigilu bidez San Frantzisko Xabierren bitzia jaso dute Aoztegi aretoan

*Bergarako filatelia eta numismatika elkartea antolatu duen zigilu erakusketa erlijioa izan du ardatz nagusi*

**Arantzazu Ezkibel**

*San Frantzisko Xabier, V. mendeurrenaren izenburuean zigilu erakusketa egin dute Bergarako filatelia eta numismatika elkartekoek.*

Astebezez izan ditu ateak zabalik erakusketa Aoztegi aretoan, eta denbora horretan hainbat bergarar hurbildu da bertara erakusketaren nondik norakoak ikustera.

**SANTUAREN BIZITZA**

Hainbat bildumagilleren zigiluak jaso dituzte Bergarako erakusketarako; besteak beste, Galizia, Bartzelona, Araba eta Salamankako zaleenak. Eta zigilu guztiek gai ezberdinak jorratu arren, ardatz bera izan dute: San



Abenduaren 1ean ireki zituen ateak zigilu erakusketak.

ARANTZAZU EZKIBEL

Frantzisko Xabierren bizitza. Hala, hainbat gaitan banatu dute erakusketa: Biblia, Familia Santua, Nazaretekotz Jesus, Euskal Herriko musika eta Jesusen bizitza. Modu honetan, santuaren V. urteurrena ospatu dute.

**IBARREKO ZIGILUAK**

Zigilu asko eta denetarikoak izan dira, baina aipagarriena izan da 1960ko maiatzaren 15ean Arrasaten egindako Hiri-Gutunaren mendeurrenaren ospatzeko atera zuten zigilua.

Bergarako elkartekoak antolatu duen 29. erakusketa izan da. 1972. urtean sortu zen elkartea eta ordutik hona lagun asko izan ditu; gaur egun 40 inguru dira. Izan ere, euroarekin zigilua garestitu egin dela esan digute.

## Obra klasikoak eta gaur egungoak uztartu zituen

*Alacanteko La Aurora abesbatzak emanaldia egin zuen egubakoitzean Aretxabaletako parrokan*

**M.B.**

San Vicente del Raspeig hiriko (Alacant) La Aurora abesbatza bisitari izan dute aretxabaletarrak egunotan. Izan ere, emanaldia egitera etorri ziren egubakoitzean. Erreperitorio zaba-

la egin zuten La Aurorako 40 ahotsek parrokian, Diego Baenas Pontes maisuaren zuzendaritzapean. Hamabost obra abestu zituzten, klasikoak eta baita gaur egungoak ere. Besteak beste, abestu zituzten Mozart, Berletti, Favero, Joan Manuel Serrat eta Moreno Buendiaren lanak.

**ARETXABAleta ABESBATZA**

Eta herriko abesbatzak ere egingo du emanaldia: Gabonetako kontzertua, hain justu ere. Angel Barandiaranen zuzendaritzapean jardungo du abesbatzak. Gainera, Jose Luis Francesena organo-jotzailea izango dute



La Aurora abesbatzako kideek hamabost obra abestu zituzten.

JOSETXO ARANTZABAL

lagun Maritxen Urkia sopranoak, Entzi Zubiri tenorak, Jabier Etxeberria baritonoak eta abesbatzako gainerako kideek.

Aretxabaleta abesbatzaren emanaldia abenduaren 29an izango da, 19:00etan, parrokan.

**Danbaka****Publikoaren Saria**

Hemen, orain arteko sailkapena. Bozkatzeko hiru aukera daude: [danbaka.com](http://danbaka.com) webgunean; SMS bidez: [danbaka](http://danbaka.com) [laga tarte] taldearen izena eta bidali 5767 zenbakira. SMSaren kostua 1,20 euro+BEZA. Eta Espa-Loian jarritako kutxetan.

1	LITTLE LITTLE MUCH	ARRASATE	Botoen %20,88
2	DRAKES	ONATI	Botoen %17,52
3	ANAL BAG	ARRASATE	Botoen %10,11
4	KLAKSON	ANTZUOLA-ZUMARRAGA	Botoen %9,80
5	ABY-KEM	BERGARA	Botoen %8,87
6	RAUL LASA	ARRASATE	Botoen %6,53
7	UNNEA	ONATI	Botoen %5,36
8	SCAM	ARETXABAleta	Botoen %5,29
9	THE 5 TWISTERS	ARRASATE	Botoen %4,63
10	BELCEBLUES	BERGARA	Botoen %1,96
11	IGOR	ARETXABAleta	Botoen %1,81
12	OZEN	ARRASATE	Botoen %1,53
13	MALENKONIA	ONATI	Botoen %1,50
14	LOS CRETINOS	ARRASATE	Botoen %1,33
15	MATX	ELGETA	Botoen %1,14
16	VOTOX	BERGARA	Botoen %0,97
17	MAHASTER RIVER	BERGARA	Botoen %0,74
18	JIM TNT	ARRASATE	Botoen %0,34
19	INALECTRIK	ARETXABAleta	Botoen %0,34
20	AZKAITER PELOX	BERGARA	Botoen %0,32

**DANBAKA)))))**

## Aukeratu zure talderik gustukoena SMS\* bidez

danbaka [laga tarte] taldearen izena eta bidali 5767 zenbakira.

**INFORMAZIO + [www.danbaka.com](http://www.danbaka.com)**

\* SMSaren kostua 1,20 euro+BEZ.

## Aita Madinaren omenezko emanaldia egingo dute Oñatin egubakoitzean

*Euskadiko  
Orkestra  
Sinfonikoak eta  
Donostiako  
Orfeoiak egingo  
dute emanaldia,  
parrokian*

### Leire Kortabarria

Aita Madina Oñatiko musikaria zenaren omenezko kontzertua antolatu du Oñatiko Udalak. Musikaria jaio zeneko mendeurrenaren beteko da urtarrilean, eta, horren harira, haren omentzeko kontzertua antolatu dute. Hala, hilaren 15ean, Donostiako Orfeoiak eta Euskadiko Orkestra Sinfonikoak emanaldia egingo dute Oñatiko parrokian.

### AHALEGIN HANDIA

Izan ere, ahalegin handia egin behar izan du Oñatiko Udalak bi taldeok ekartzeko. Horrekin batera, ekitaldi berezirako parrokian teknikoki ahalik eta

ondoen ikusi eta entzuteko bitartekoak ere prestatu dituzte. Hala, 720 lagunendako lekua egongo da eta elizaren alboetan jesartzen direnek pantailatik jarraitu ahal izango dute emanaldia. Emanaldiaren aurrekontua 38.000 euro da.

Dagoeneko sarrerak salgai daude kultura etxeen 15 euroren truke, eta ezingo dira telefonoz eskatu ezta taldeendako hartu ere. Bestalde, sarrera guztiak kultura etxeen salduko dituzte; parrokian ez da sarrerarik salduko.

### EKITALDI GEHIAGO

Urtarrilean beteko da Aita Madina jaio zeneko mendeurrenaren, eta ospakizunekin jarraituko dute Oñatin. Hain justu, urtarrilaren 28an, haren omenezko plaka jarriko dute Txipitxeen eta aurretik, Oñatiko abesbatzak mezetan abestuko du. Urtean barrena ekitaldi gehiago ere egongo dira: maiztzean, Musikene musikaldian bi kontzertu eskainiko dizkio Aita Madinari eta Oneretako Musikasten haren lanak joko dituzte.

### Labur

## Mississippi Mass Choir taldeak gospel emanaldia egingo du

Aurtengo Gabonetan ere AEBetako doinu espiritualak izango ditugu gurean: gospel doinuak, beltzek abestuta. Hain zuen ere, Mississippi Mass Choir taldeak emanaldia egingo du abenduaren 23an Amaia antzokian. Sarrerak salgai daude, dagoeneko, Servikutxa kutxazainen. Mississippi estatuko Jackson hiritik dator abesbatza hori, eta mundu osoan ibili da Jainkoaren ganako maitasun eta laudoriozko musika abesten. *Singing Gospel Christmas* ikuskizuna egingo dute oraingoan.

## Alfontso Ugarte musikaria zenaren omenezko ekintzak egubakoitzean

Alfontso Ugarte musikari antzuolarra omenduko dute jaioterran abenduaren 15ean, barikua, haren izena daraman proiektua aurkeztuta. Ugarteri omenaldia Olaran aretoan izango da, 19:00etan. Antzuola eta Lizarrako udalek, Eusko Ikaskuntzak eta Udalbidek antolatzen dute. Besteak beste egongo dira: musikari antzuolarraren gaineko erakusketa; Antzuolako abesbatzak Ugarteren Gabon kantuak abestuko ditu; eta Xabier Imanol Muñoz txistulariak Ugarteren obrak joko ditu.

## Gabonetako marrazki lehiaketak daude Bergaran eta Eskoriatzan

Bi marrazki lehiaketa daude zabalik egunotan, bata Bergarako umeendako eta bestea Eskoriatza eta Leintz Gatzagakoendako.

Bergaran Jardun elkartea VI. Olentzero marrazki lehiaketa deitu du. Herriko LHko eta DBHko ikasle guztiak parte har dezakete. Abenduaren 18an banatuko dituzte sariak.

Bestetik, Eskoriatzan eta Leintz Gatzagan Gabonetako marrazkiak egitea eskatzen diente 6-12 urte bitarteko umeei. Ludotekan edo kultura etxeen entregatu behar dira lanok.

### Hitzorduak



### 'ACTTO PARA LA NOCHE BUENA' ANTZEZLANA ARRASATEN ETA ARAMAION |

Arrasateko Doke antzerki taldeak taulatuko du; hilaren 16an eta 17an Arrasaten eta 23an Aramaion

Hego Euskal Herriko lehenengo euskalazko antzeziana ikusteko aukera egongo da Arrasaten eta Aramaion Gabonen atarian. Arrasateko antzerki taldeak ekoitzi eta antzeztuko du Pedro Ignacio de Barrutia aramaioarrak XVIII. mendean idatzitako lana.

Arrasaten hilaren 16an (20:00etan) eta 17an (19:00etan) egingo dute emanaldia Amaia antzokian eta dagoeneko eskura daitezke sarrerak.

Aramaion, berriz, emanaldi bakarra egingo dute. Hilaren 23an izango da hori, 20:00etan, kultura etxeen.

### ZINEMA I

#### • *La guerrilla de la memoria* emango dute Oñatin

Eguenean, hilak 14, emango dute film hori zineklub emanaldian, kultura etxeen, 20:00etan.

#### • *Kume filma Elgetako Espaloia antzokian*

Kume izeneko familia osoaren dako filma emango dute domekan, hilak 17, Espaloia kafe antzokian.

#### • *Ice Age 2* filma emango dute Aramaion

*Ice Age 2* izeneko filma emango dute domekan, hilak 17, liburutegian, 17:00etan. Bereziki, umeek ikusteko modukoa da.

### IKUSKIZUNAK I

#### • *Dantza garaikide-poesia-kontakt emanaldia*

Dantza garaikidea, poesia eta kontakta batzen dituen emanaldia egingo dute Naiara Iñiguez gasteitztarrak eta Olaff Kehler bilbotarrak Aretxabaletako udaletxe zaharrean. Abenduaren 15ean izango da 20:30ean, eta Aretxabaletako Jaiki elkartea antolatzen du.

### MUSIKA I

#### • *Danbaka lehiaketako azkeneko kontzertua*

Danbaka musika lehiaketako azken kontzertua egingo dute abenduaren 15ean, egubakoi-

tza. Honako taldeek joko dute: Inalectrik (Aretxabaleta), Little Little Much (Arrasate), 5 Twisters (Arrasate) eta Anal Bag (Arrasate). Sarrerak salgai daude Goienako egoitzetan eta Gaztekutzaren bidez. Bestalde, Danbakako kamisetak erosteko aukera ere badago.

Neska eta multilendako diseinuak daude. Argibide gehiago, [www.danbaka.com](http://www.danbaka.com) webgunean.

#### • *Rafa Rueda eta Unnearen kontzertua Oñatin*

Rafa Rueda bakarlariak *Sare-dun eskua* diskoa aurkeztuko du kontzertuan hilaren 16an, zapatua, Oñatiko gaztelekuaren, 22:30ean. Sarrera 5 euro kostatuko da.

### ERAKUSKETAK I

#### • *Iñigo Arregi arrasatearrak eskultura erakusketa dauka*

Iñigo Arregi artista arrasatearrak altzairuzko 14 eskultura-lan ipini ditu erakusketa Gasteizko Felisa Navarro erakusketa aretoan. Eskulturak bakarrik erakusten dituen lehen aldia da. Cercas Bajas kaleko 2. zenbakian dago areto hori.

### ANTZERKIA I

#### • *Oihulari Klown egunean emakume Txokoan*

Modelo clowntrapublicitaria izeneko antzezlan egingo du

Virginia Imaz Oihulari Klown taldeko aktoreak, Emakume Txokoak antolatuta euren egoitzan. Eguenean izango da hori, 19:00etan.

### LEHIAKETAK I

#### • *XV. Amodiozko Gutunen Lehiaketan parte hartzeko*

Amodiozko Gutunen Lehiaketa antolatu du Bergarako Jardun euskara elkartea. 1992an edo lehenago jaiotako edozeinek parte har dezake lehiaketan. 450, 240, 150 eta 100 euroko sari bana emango dute. Lanak bidaltzeko mugaeguna urtarrilaren 7a da. Horrez guztiaz gain, urtarrilean, amodiozko SMS bidezko mezuen lehiaketa ere zabalduko du Bergarako elkartea. Argibide gehiago honako webgunean izango dituzue: [www.jardun.net](http://www.jardun.net).

#### • *Orhan Pamuk turkiarraren nobela bat itzultzeko beka*

Orhan Pamuk aurtengo Literaturako Nobel saridunaren *Kar* nobela ezaguna euskalara itzultzeko Jokin Zaitegi beka deitu berri dute Arrasateko AED elkartearak eta Elkar argitaletxeak. Irabazleak 9.000 euro jasoko ditu liburu itzultzeko. Oinarriak eta itzultzeko testua honako webgunean aurkituko dituzue: [www.elkarlanean.com/jokin-zaitegi](http://www.elkarlanean.com/jokin-zaitegi).

**Eguraldia**

Astelehena, 11	Martitzena, 12	Eguaztena, 13	Eguena, 14	Egubakoitzta, 15

**Hotz egingo du gaur ere, baina poliki-poliki hoberantz egingo du asteon**

Hotz handia, baina garbi eta txukun egingo du gaur. Haizeak hego ukitua hartuko du, epeltasun handirik gabe. Era bat aldatuko da, berriz, martitzenean: goiz partean laino ugari egongo dira eta euria ere egingo du. Arratsalderako pixka bat garbituko du eta atertu ere egingo du.

Eta eguzatenetik aurrera, ostera, hobetu egingo du egualdiak. Eguaztenean garbiago izango dugu zerua, nahiz eta tenperatura fresko mantenduko den; euririk, behintzat, ez du egingo. Eguren eta egubakoitzterako are gehiago hobetuko du eta tenperaturak ere gorantze egingo du.

**Guardiako farmaziak****ARRASATE**

<b>Astelehena, 11</b>	Amezua	Santa marina 32 (943 79 09 74)
<b>Martitzena, 12</b>	Morales	Araba etorbidea 14 (943 79 18 65)
<b>Eguaztena, 13</b>	Ruiz Perez	Maalako arrabala 31 (943 79 14 09)
<b>Eguena, 14</b>	Zabala	Zarugalde 42 (943 77 16 30)
<b>Egubakoitzta, 15</b>	Azkoaga	Ferreras 1 (943 79 15 15)

**BERGARA**

<b>Astelehena, 11</b>	Mozos	Iparragirre 2 (943 76 12 15)
<b>Martitzena, 12</b>	Urriticoechea	Oxitondo 4 (943 76 11 74)
<b>Eguaztena, 13</b>	Zabala	Barrenkalea 25 (943 76 16 87)
<b>Eguena, 14</b>	Gualtar	San antonio 5 (943 76 11 05)
<b>Egubakoitzta, 15</b>	Estella	Matxiategi 5 (943 76 19 63)

**ONATI**

<b>Astelehena, 11</b>	Anduaga	San Lorentzo 3 (943 78 21 16)
<b>Martitzena, 12</b>	Anduaga	San Lorentzo 3 (943 78 21 16)
<b>Eguaztena, 13</b>	Barrenetxea	Kale Zaharra 1 (943 78 01 22)
<b>Eguena, 14</b>	Barrenetxea	Kale Zaharra 1 (943 78 01 22)
<b>Egubakoitzta, 15</b>	Garate	Kale Barria 42 (943 78 05 58)

**ARETXABAleta**

<b>Astelehena, 11</b>	Martin	Herriko Plaza 10 (943 79 21 99)
<b>Martitzena, 12</b>	Martin	Herriko Plaza 10 (943 79 21 99)
<b>Eguaztena, 13</b>	Martin	Herriko Plaza 10 (943 79 21 99)
<b>Eguena, 14</b>	Martin	Herriko Plaza 10 (943 79 21 99)
<b>Egubakoitzta, 15</b>	Martin	Herriko Plaza 10 (943 79 21 99)

**Telefono jakingarriak****((112))  
SOS DEIAK****OSASUNA / LARRIALDIAK**

OSAKIDETZA (Larrial.)	943 46 11 11
DYA (Orokorra)	943 46 46 22
DYA (Antzuola)	943 78 71 57
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Ertzaintza	
Arrasate	943 79 71 99
Bergara	943 53 47 20
Osasun Etxeak	
Arrasateko Ospital.	943 03 53 00
Antzuola	943 76 62 23
Aramaio	945 44 53 40
Aretxabaleta	943 71 19 59
Bergara	943 03 54 00
Elgeta	943 03 54 00
Eskoriatza	943 71 44 52
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 03 54 30
Hies Ekimena	943 79 26 99
Udalzainoak	
Antzuola	943 76 62 46
Aramaio	945 44 50 16
Arrasate	943 79 14 39
Aretxabaleta	943 71 18 63
Bergara	943 77 91 06
Jardun / Bergara	943 76 08 19

**Eskoriatza**

943 71 44 07

Leintz Gatzaga

943 71 47 46

Oñati

943 78 04 11

Laixan / Onati

943 71 63 11

Txirritola / Aram.

945 44 52 66

Hondakindegia Alternatiboak

Arrasate

943 77 11 43

Bergara

943 76 44 42

Oñati

943 78 36 67

Kiroldegiaik

Aramaio

945 44 53 35

Arrasate

943 77 16 77

Antzuola

943 76 61 81

Arrasate

943 79 12 22

Aramaio

945 44 50 33

Aretxabaleta

943 77 12 64

Bergara

943 79 12 22

Eskoriatza

943 71 40 59

Oñati

943 78 03 65

RENFE

902 24 02 02

**GARRAOAK**

Eusko Trenbideak

902 54 32 10

PESA

902 10 12 10

Taxiak

943 76 61 81

Arrasate

943 79 12 22

Aramaio

945 44 50 33

Aretxabaleta

943 71 19 59

Bergara

943 03 54 00

Elgeta

943 03 54 00

Eskoriatza

943 71 44 52

Leintz Gatzaga

943 71 47 46

Oñati

943 03 54 30

Hies Ekimena

943 79 26 99

Udalzainoak

Antzuola

943 76 62 46

Aramaio

945 44 50 16

AED / Arrasate

943 71 21 17

Axtroki / Eskoriatza

943 71 54 34

Goibeko / Elgeta

943 78 90 85

Loramendi / Aretx.

943 77 09 70

Idolaz / Antzuola

943 78 70 56

Jardun / Bergara

943 76 08 19

Oñati

943 78 04 11

DEBAGOIENA

Mankomunitatea

943 79 33 99

Hiltegia (Zubillaga)

943 78 15 12

Mendi nekazaritzak el.

943 76 25 47

Nekazaritz Ganbera

943 76 10 15

Zerga Bulegoa

943 76 58 63

## Zorion agurrak



ARRASATE  
**Leire Gartzia**  
Abenduaren 7an, 4  
urte. Zorionak  
Sanvi Txikiko lagu-  
nen partetik!

ARRASATE  
**Igor Errasti**  
Abenduaren 11n, 4  
urte. Zorionak  
Sanvi Txikiko lagu-  
nen partetik!

ARRASATE  
**Amaia Aranegi**  
Abenduaren 11n, 11  
urte. Zorionak eta  
urte askotarako.  
Lagunen partetik!

ARRASATE  
**Oxel Sanz**  
Abenduaren 12an, 3  
urte. Zorionak  
Sanvi Txikiko lagu-  
nen partetik!

ARRASATE  
**Iker Barandiaran**  
Abenduaren 14an,  
Gazteen orrira  
muga gainditu  
duzu. Lankideak.

ARRASATE  
**Jordi Carrera**  
Abenduaren 14an,  
urtebetetzea.  
Zorionak!  
Koadrilakoak.

BERGARA  
**Maite Gantxegi**  
Abenduaren 9an, 28  
urte. Zorionak eta  
urte askotarako!  
Etxekoak.

BERGARA  
**Francisco José  
Moreno**  
Abenduaren 12an,  
4 urte. Urte asko-  
tarako! Etxekoak.

BERGARA  
**Maria Martinez**  
Abenduaren 12an,  
4 urte. Zorionak  
eta muxu bat.  
Etxekoentzat.



# Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak  
ASTELEHENKO GOIENKARIAREN bidez!  
Ekar ezazu bere argazkia, eta emaiozu ezusteko ederra!

## Jaiotakoak



**Aratz Kortabarria Larrañaga**  
Arrasate • 4,460 kg. Abenduaren 3a.  
Gurasoak: Olatz (Aramaio) eta Oier  
(Aramaio). Argazkian umea kuman.



**Lorea Arana Mata**  
Aramaio • 3,650 kg. Abenduaren 4a.  
Gurasoak: Rosa (Aramaio) eta Jon  
(Aramaio). Argazkian Alazne ahizparekin.



**Oihan Martinez Oruna**  
Arrasate • 3,630 kg. Abenduaren 5a.  
Gurasoak: Eneritz (Arrasate) eta Jose  
Antonio (Arrasate). Argazkian amarekin.



**Maider Martiarena Ezkerra**  
Arrasate • 3,200 kg. Abenduaren 6a.  
Gurasoak: Yolanda (Arrasate) eta Alex  
(Arrasate). Argazkian amarekin.



**Josu Hernando Gutierrez**  
Aretxabaleta • 2,900 kg. Abenduaren 8a.  
Gurasoak: Izaskun (Aretxabaleta) eta Jose  
Luis (Arrasate). Argazkian umea kuman.

## Zoriondu ARRASATE IRRATIA



Ikaskideak, lagunak edo  
senitartekoak zoriondu  
nahi badituzu, **ARRASATE IRRATIAK** egunero  
ematen  
dizu aukera hori.

**Bidali eskaria:**  
[irratia@goiena.com](mailto:irratia@goiena.com) helbidera  
edo deitu 943 71 17 31 telefonora.

Egunero,  
zorion agurren tarteak  
**ARRASATE IRRATIA**

**FM107.7**  
**ARRASATE**  
**IRRATIA**



**Luken eta Uxue Urrutia Abarregi**  
Arrasate • 2,640 eta 2,630 kg. Abenduaren 8a. Gurasoak: Amaia (Arrasate) eta Iñigo  
(Arrasate). Argazkian amarekin.

## Hildakoak

**Maria Ugarte Oianguren** | Bergaran, abenduaren 10ean. 90 urte.



**ESKELAK**  
ASTELEHENKO  
GOIENKARIKO  
85 euro  
**943 25 05 01**

**Gaur irratian****Arrasate Irratia**

FM 107.7

'Igo autobusera' | 10:00

**Lorentxo Altube,  
Erromatik bueltan**

Lorentxo Altube elkarritzetako dute, 11:00etan: Erroman egon berri da arrasatearra, hango euskaldunen elkarreka antolatutako Kultura Asteak. Txalaparta ikastaroa eman du Altubek, eta Erromako esperientzia kontatuko digu.

**Oñati Irratia**

FM 107.4

'Eguerdiko saioa' | 12:15

**Asteko hitzorduendako  
tartea**

Astelehenero bezala, aste bukaerak emandako albiste garrantzitsuenen gainbegiratua egingo dute Miren Urkiolak gidatutako irratsaioan. Asteko hitzorduendako tartea izango da baita ere. Eta entzuleek parte hartzea aukera izango dute.

**Euskadi Irratia**

FM 104.4

'Faktoria' | 10:05

**Lagundutako  
ernalkuntza****Radio Euskadi**

FM 98.2

'Boulevard' | 09:30

**Josu Onaindi CCOOk  
idazkari nagusia****Herri Irratia**

FM 99.8

'Loiolako porrusaldan' | 12:05

**Santa Luzia azoka  
Zumarragan****GOITB programazioa**

Astelehena, 11



**Erreportajea:  
'Artzantzaren liburua'**  
**21:47**

Goierr Telebistak ekoitztako saioa. Marixabel eta Lierni Elortza ahizpek idatzitako liburuaren gaineko erreportajea gaur gauean.

Martitzena, 12



**'Danbaka' musika  
lehiaketa: Unnëa**  
**21:47**

Danbaka musika lehiaketa azken txanpara iristen ari da: Unnëa oñatiarrek Espaloian egin zuten emanaldia ikusteko aukera izango duzue gaur.

Eguaztena, 13



**Mertxe Mondragon  
elkarritzeta**  
**21:15**

Mertxe Mondragon Aramaio alkatea izango da gaurko gondidatua Debarri saioan. Alberto Gorritibreak elkarritzetako du, ikus-entzuleen laguntzarekin.

Eguna, 14



**Gaztetxoei zuzendutako  
marrazki bizidunak**  
**13:20, 17:15, 20:15**

Marrazki bizidunak egunero GOITBn, eguerdian eta arratsaldean. Nonochan-ek jarraitzaile ugari ditu gaztetxoen artean.

Egubakoitza, 15



**Gertuko informazioa  
albistegietan**  
**14:45, 19:45, 20:45**

GOITBko albistegietan bailaran gertatutakoak jarraitzen aukera duzue. Goiartz Aranak (irudian) eta Larraitz Zeberiok aurkeztutako albistegiak.

13:15 Emisio hasiera.

13:20 Marrazki bizidunak:

Sherlock Holmes.

13:45 Gaurkoak.

13:47 Berbaire II.

14:15 Danbaka: Scam.

14:45 Albiste aurrerapena.

15:00 Teknopolis.

15:45 Gaurkoak.

15:47 Erreportajea.

16:15 Ikusmira.

16:45 Albisteak.

17:15 Marrazki bizidunak.

17:45 Gaurkoak.

17:47 Eltze beroa.

18:15 16mm.

18:45 Albisteak.

19:15 Danbaka.

19:45 Berriak.

20:15 Marrazki bizidunak:

Sherlock Holmes.

20:45 Berriak.

21:15 Debarri-Aramaio

21:45 Gaurkoak.

21:47 Debarri-Aramaio.

22:15 Hasiberriak.

22:45 Berriak.

23:15 Berbaire.

23:45 Gaurkoak.

23:47 Erreportajea.

00:15 Emisio amaiera.

13:15 Emisio hasiera.

13:20 Marrazki bizidunak:

Nonochan.

13:45 Gaurkoak.

13:47 Berbaire.

14:45 Gaurkoak.

21:47 Danbaka.

22:15 Didjerido.

22:45 Berriak.

23:15 Erreportajea.

23:45 Gaurkoak.

23:47 Ilunpean.

00:15 Emisio amaiera.

**Kamera aurrean**

**"Goitik behera dator diskoen salmenta, on-line jaitsierak gehitu direlako. Iazko salmentak berdintzea ondo legoke"**

RITXAR AIZPURU |  
OIHUKA  
Berriak, 2006-12-05



**"Euskal Herrian abizenak lotuta zeuden etxearekin. Horregatik, etxea aldatzean abizena ere aldatzen zen"**

JUAN CARLOS MORA |  
DOKUMENTALISTA  
Berriak, 2006-12-06

**'Harmailatik'****SAIO BEREZIA**

'Shisha Pangma-rako bide luzea'

Gaur, astelehena, 21:15ean

**Goitb**  
Goiena Telebista  
**Ikustekoa!**



Abenduak 11: 111 zozketa

ASTELEHENeko GOIENKARIA  
Harpidedunen  
**txokoa**

# Zorionak irabazleoi!

Gaur, abenduak 11, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan dator. Zu tartean bazaude, zorionak!

Asteleheneko Goienkaria-ko harpidedun bazara, adi:

**Zeu izan zaitezke hurrengo zozketako irabazleetako bat!**

## BALDINTZAK

- Asteleheneko Goienkaria-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

**902 36 38 51**

Astelehenean, egubakoitzera, 09:00etatik 18:30etara.

Harpidetza kuota:

**5 euro**

2006 bukaera arte.

**Goienkaria**  
astelehenean, aste bukaera osoa



Hauek dira aste honetako sarien irabazoleak.  
Zure izena zerrendan badago,  
**ZORIONAK!**

Zortzi sarrera abenduaren 15ean, ELGETAKO ESPALOIAn, DANBAKA MUSIKA LEHIAKETA barruan izango den kontzerturako. (Saridun bakoitzari bi emango zaizkio)

- Maite Barandiaran Ors (Arrasate)
- Iñaki Barrenetxea Artetxe (Aretxabaleta)
- Jabi Armendariz Zubizarreta (Eskoriatza)
- Ane Arantzabal Billar (Elgeta)



## Abenduaren 18ko saria



- Bi sarrera abenduaren 22an ELGETAKO ESPALOIAn izango den TXALO konpainiaren Artea antzezlanerako.

## ETXEKO TXIKIENDAKO SARIAK



Umeentzako joko dibertigarriak eskuratu nahi badituzu, txartela bete eta sarien zozketan sartuko zara. Irabazoleen izenak abenduaren 18ko Asteleheneko Goienkaria-n argitaratuko dira.

- Izen-abizenak: .....
- Umearen adina .....
- Telefinoa .....
- Helbidea .....
- Herria .....

- Baldintzak:
  - Nahi beste txartel bidali ahal izango dira.
  - Txartelak jasotzeko azken eguna: abenduak 13.
  - Ez da fotokopiarik onartuko.

Txartela eraman dezakezu herri bakoitzeko egoitzara edo bidali 132 posta-kutxara (20500) Arrasate



Goizean: lainoa tarteka  
Arratsaldean: lainoa tarteka

## Hamarrekoa

PORROTX | PAILAZOA

# “Akaso Olentzeroen laguntzaileak izango gara Pirritx eta biok”

Oihana Elortza

### 1. Eroso ibiltzen zara zapata handi horiekin, Porrotx?

Bai, ez didate minik egiten. Behin bi platano jan nituen osorik, azkar-azkar, eta besoetik buelta egin ostein hanke-taraino heldu ziren. Orain bi platanu ditut hanketan.

### 2. Umeak, gurasoak eta aitaita-amamak, denak dira zure lagunak, ezta?

Bai. Eskoriatzara etortzen garenean ere denbora luzea egiten dut hemengo gurasoekin eta aitaita-amamekin. Argazkiak ere ateratzen ditugu elkarrekin.

### 3. Jende asko kanpoan gelditu zen. Etorriko zarete laster berriro Deba-goienera? Bai, horixe! Urtarri-lean, uste dut, Aretxabaletara goazela Pirritx eta biok.

**4. Euskal Herriko herri asko ezagutuko dituzu honezkeria, ezta?** Toki askotan egon gara, bai, eta denean oso ondo pasatu dugu. Jolas asko egin dugu herrietako ume-ekin eta lagun asko egin ditugu. Guri asko gustatzen zaigu toki batetik bestera joatea lagunak egiteko eta jolasteko.

### 5. Gustatzen zaizkizu Gabonak? Bai, asko.

Aurten ere Pirritxekin eta amonarekin pasako ditut eta hara eta hona ere ibilikoz gara Mari Mototsekin.

### 6. Kalean bizi da Mari Motots? Parke baten bizi da bere ama, eta bera parkeko zuhaitzean egindako etxetxo baten. Baino parkea magikoa da eta gauza harri-garriak gertatzen dira.

### 7. Gauza asko eskatu dizkiozu Olentzerori? Pirri-

txek eta biok gauza bat bakarrik eskatzen diogu, asko eskatzen baditugu, ume asko geldituko dira jostailurik gabe. Eskatu diogu Olentzerori berarekin banatzea opariak; agian haren laguntzaileak izango gara.

### 8. Zer moduz dago amona? Ondo, baina nik esaten diot asko jan behar duela, porru-patatak jan behar dituela, indarra hartzeko berriro.

### 9. Zuk zer jaten duzu, zer gustatzen zaizu? Nik denetarik jaten dut. Aspaldi, aspaldi, aspaldi ez nuen



Arropa berriak dituzte Pirritx eta Porrotx pailazoek. Orion egingitzen dituzte ikuskizun berri bat estreinatzen duten bakoitzean. Porrotzek orain dituenak arrosa kolorekoak dira. Askotan gustatu zaio jantzi berria, eta pozik dago. Gabonak gustatzen zaizkiola esan digu eta amonarekin eta Pirritxekin pasako dituelako kontatu digu, baita Euskal Herriko ume askorekin ere.

jaten arraina, baina egun batean probatu nuen eta asko gustatu zitzaidan, oso goxoa da. Batzuetan bazkaltzen dut bi fideo eta lau kroketa. Olentzerori ere horixe jarriko diogu oinetako-en ondoan abenduaren 24an.

**10. Triste egoten zara, Porrotx?** Batzuetan bai, baina hori geratzen zaidanean irribarre egiten dut eta pozik jartzen naiz berriro. Pozik egon behar da, irribarre egin behar da.

**Euskal soinu eta irudiak zure eskura!**

**ABESTIAK** POLIFONIKOAK (SMS 1)  
Abestien izena (Abeslaria) | **KODEA**

**SOINUAK:** Bidali, SOINUE+hutsunea+**KODEA**  
**ABESTIAK:** Bidali, SOINUP+hutsunea+**KODEA**  
**LOGOAK:** Bidali, SOINUL+hutsunea+**KODEA**  
**JOKOAK:** Bidali, SOINUJ+hutsunea+**KODEA**

**Himnoak**  
Eibar, **EBALAR**  
Athletic Club, **BILBAO**  
Osasuna, **OSASUNA**  
Real, **REAL**  
Herreroikoa, **UNION**  
Bagarel, **BAGARE**  
Desde Santurce a Bilbao, **DESDE**

**WEBGUNEAN** ➡ [www.smsoinu.com](http://www.smsoinu.com)

**SOINUAK:** Bidali, SOINUE+hutsunea+**KODEA**  
**ERREALAK (2 SMS)**

Ikuasi Mendizaleak | **MENDI**  
Pinxto-pirbko | **PINTXO**  
San Simon eta San Judas | **SAN**

**JAIETAKOAK**

Artillerio dale fuego | **ARTILLERO**  
Marija (Kepa Junkera) | **JAIA**

San Fermín | **FERMÍN**  
San Martzietako aherdea | **SAN MARTZIAL**

**Folk**

Arratsalde honetan (Sortean Bele) | **SOROTAN**

Bai euskarari (Pantxo) | **BAI**

Bakezaleak (Anje Duhalde) | **BAKE**

Bizkaia Maria (Bento Lerkundia) | **BIZKAIA**

Eperak (Anje Duhalde) | **EPERRAK**

Euskal Herriko Euskalaz (Osorko) | **EUSKAL**

Euskaldun bernarela balada (Osorko) | **EUSKALDUN**

Ez da posible (Ruper Ordorika) | **POSIBLE**

Furia Furia (Osorko) | **FURRA**

**5767**  
zenbakira

SMS bakoitzeko:  
1,2 € + BEza

**SMsoinu**  
Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak



**OHARRAK**  
1. **BATERAGARRITASUNA:** Begiratu zure poltsikoko telefonoa, bateragarrira den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: [www.smsoinu.com/bateragari](http://www.smsoinu.com/bateragari)  
Bertan jasko duzu beharreko duzen informazio guzta.  
2. **BALDINTZAK:** Edukatik eskuratzeko, beharrezko da GPRS sistema aktibitatea izatea. GPRS sistema aktibatzeko, jarraitze zure hornitzalearekin harremanetan. Alita ematea doan da eta K8 jaitseria bakiarrak ordaindu beharko duzu. Kasu guztiaren dela eta GPRS sistemaren alda ematea doa.  
\* Euskatel: deitu 900 84 02 00 telefona, \* Vodafone: deitu 123ra, \* Movistar: deitu 609-a.  
3. **ZALANTZAK:** Edodein zalantzduzula, jani gurekin kontaktuan: [smsoinu@smsoinu.com](mailto:smsoinu@smsoinu.com) / deitu 902 01 21 48 telefona.  
4. **PERTSONALIZazioak:** Zure neurriar egun ditzakegu abesti eta logotak. Webgune honetan kaleratu eta erabilitzaleek eskura dezakete nahi baduzu, jani gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefona.